# VILLAVA ATARRABIA

193 | IRAILA 2026 SEPTIEMBRE

Atarrabiako udal informazio aldizkaria
Boletín de información municipal de Villava




## 15 ATARRABIAKO EGUNA

# Iragana eta oraina ospatzeko jaia

# Celebrar el pasado y el presente

HEMEN GAITUZU / SÍGUENOS EN:

**www.villava.es**

**Twitter** (municipal)

**Facebook**
(Berdintasuna-Igualdad / Kirolak-Deportes / Kultura-Cultura)

EGIN ZAITEZ AUAko HARPIDEDUN! / SUSCRÍBETE AL BIM


05



Osasun Etxe berria, zabalik

Villava estrena Centro de Salud

07



Hobekuntzak kirol instalazioetan

Mejoras en las Instalaciones Deportivas

# OSOKO BILKURAK | PLENOS

## OSOKO BILKURA ARRUNTA

### 2026ko MAIATZAREN 27a

**Jarduketarako Protokolo Orokorra, metropolirako plangintza estrategikoan bildutako ekintzak ezartzeko.** Zinegotzi guztiak bertan zirela, Jarduketarako Protokolo Orokorra onetsi zuen osoko bilkurak aho batez, metropolirako plangintza estrategikoan bildutako ekintzak metropoli-eremuko udalen, Nafarroako Gobernuaren eta Iruñerriko Mankomunitatearen artean ezartzeko.

**Onetsi da gizarte enplegu babestuko programak kontratatuNone langileendako osagarria.** Osoko bilkurak aho batez onetsi zuen gizarte enplegu babestuko programak kontratatuNone langileendako osagarria. 100 eurokoa da hileko (12 ordainketa) eta 2026ko urtarrilaren 1etik izanen du indarra. Ez da xurgagarria lanbidearteko gutxieneko soldaten balizko igoeren kontura, eta muga bat dauka, hots, gizarte enplegu babestuaren programari atxikitako pertsonek jasotzen duten soldata ez da inola ere izanen Udaleko beste edozein lanposturen soldata baino handiagoa.

**SALAM GAZA elkartearekiko hitzarmena, "Larrialdiko laguntza humanitarioa Gazako herritarrentzat: ur banaketa" proiektua finantzatzeko.** Udalbatzak SALAM GAZA elkartearekiko hitzarmena onetsi zuen aho batez, Gazako herritarrei edateko ura emateko proiektua gauzatzen laguntzeko. Zehazki, 10.000 euroko aurrekontu-partida bat dago horretarako.

**2026/9 aldaketa: Apoyos Mutuos elkartearendako partida bat sortzea.** Osoko bilkurak 2.000 euroko aurrekontu-partida bat sortzea onetsi zuen Apoyos Mutuos Elkartearen "Regularización 2026" programarako, 14 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, PSN eta Contigo Zurekin) eta 3 kontra (UPN eta PP). Helburua da egoera irregularrean dauden pertsonen tramiteak eta gastuak sustatzea.

**Udalak bat egin du Arguedasko Udalaren akordioarekin, herrian emakumeen aurka ustez gertaturiko indarkeria-kasua gaitzesteko.** Udalbatzak aho batez hartu zuen erabakia.

**Udalak bat egin du Nafarroako Gobernuak maiatzaren 17an, LGTBI+fobiaren kontrako Nazioarteko Egunean, egindako adierazpen instituzionalarekin.** Osoko bilkurak aho batez onetsi zuen la LGTBI+fobiaren aurkako adierazpen instituzionala.

**Contigo Zurekin taldearen mozioa, Bardeetako Tiro Poligonoaren aurkako Batzarrak aurkeztutako mozioarekin bat egiteko.** Udalbatzak Tiro Poligonoaren aurkako Batzarraren mozioa onetsi zuen, 13 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai eta Contigo Zurekin), 3 aurka (UPN eta PP) eta abstentzio 1 (PSN). Honatx edukia: Bardeetako Tiro Poligonoa 2028an eraistea eta Bardeetako Tiro Poligonoa eraistearen aldeko XXXVI. martxa babestea.

## OSOKO BILKURA ARRUNTA

### 2026ko EKAINAREN 18a

**Behin betikoz onetsirik UC-12ko HJPO, 408. eta 409. lurzatietan (Ezkaba karrikaren eta Fermín Tirapu karrikako 8ren artean, apaizen egoitza zaharra).** Zinegotzi guztiak bertan zirela, osoko bilkurak aho batez onetsi zuen behin betiko UC-12ko HJPO plana, 408. eta 409. lurzatietan.

**Administrazio-espedientea igortzeko erabakia onetsi da. Espedientea 2026ko urtarrilaren 27ko osoko bilkuraren erabakiaren kontra ezarritako gora jotzeko 26-00576 errekurtsotik heldu da eta Udal Planeko UO-3 eta SGV 2 exekuzio-unitateak birzatitzeko proiektuaren behin betiko onespenari dagokio, bai eta Udalaren alegazio txostenari ere.** Udalbatzak gaia aho batez onetsi zuen.

**Aurrekontuak aldatzeko 10. espedientea, hasiera batez onetsirik.** Kreditu-gehigarria IONGRAF ingurumenaren aldetik lehengoratzeko. Osoko bilkurak aho batez onetsirik, 160.000 euroko aurrekontu-partida bat sartu da IONGRAF eraisteak eragindako gastu igoerari aurre egiteko. Zehazki, uralitazko estalkia ezabatzetik eratorritako gastuak arintzeko, estalkia bikoitza baitzen; beraz, hasieran ez zen behar adina diru jaso aurrekontuan.

**Aurrekontuak aldatzeko 11. espedientea, hasiera batez onetsirik.** Kreditu-gehigarria Osasun Etxeko sarbiderako. Osoko bilkurak aho batez onetsirik, 76.000 euroko aurrekontu-partida bat sartu da Karrobide karrikako urbanizazio lanetarako (Osasun Etxerako sarbidea).

**Aurrekontuak aldatzeko 12. espedientea, hasiera batez onetsirik.** Diru-sarreren bidezko kreditua. Kirol inbertsioetarako mailegua. Osoko bilkurak aho batez onetsirik, 850.000 euroko mailegua eskatu da kirol instalazioetan inbertsioak egiteko.

## PLENO ORDINARIO

### 27 DE MAYO DE 2026

**Protocolo General de Actuación para implementar las acciones recogidas en la planificación estratégica metropolitana.** En una sesión plenaria a la que asistió toda la Corporación municipal, el Pleno acordó por unanimidad aprobar el protocolo general de actuación para implantar las acciones recogidas en la planificación estratégica metropolitana entre los ayuntamientos del área metropolitana, Gobierno de Navarra y la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona.

**Aprobación de complemento al personal contratado desde el programa de empleo social protegido.** El Pleno aprobó por unanimidad con efectos de 1 de enero de 2026 un complemento al


193

IRAILA 2026 SEPTIEMBRE

ATARRABIAKO UDAL INFORMAZIO ALDIZKARIA

BOLETÍN DE INFORMACIÓN MUNICIPAL DE VILLAVA

**Argitaratzailea / Edita:** Atarrabiako Udala / Ayuntamiento de Villava
**Erredakzio Kontseilua / Consejo de Redacción:** Mikel Oteiza, Mikel Asiain, Javier López, Richard García, Yadira Martín, Javier Ibáñez

**Argazkia / Fotografía:** Jon Urriza / Atarrabiako Udala- Ayuntamiento de Villava
**Itzulpena / Traducción a euskera:** Kike Díez de Ulzurrun
**Egilea / Realiza:** Heda Comunicación

**Inprimatzailea / Imprime:** Idazluma
**Ale kopurua / Tirada:** 4.400
**LG / D.L.:** NA 1223-1996
**Doako banaketa / Difusión gratuita**

FSC MIXTO Papel procedente de fuentes responsables / Papera ingurumena zainduz sortua FSC® C021816

personal contratado desde Empleo Social Protegido de 100 € al mes (12 pagas) no absorbible por parte de las posibles subidas del SMI, con el límite de que el salario percibido por las personas adscritas al programa del Empleo Social Protegido bajo ninguna circunstancia podrá ser superior al del salario de cualquier otro puesto del Ayuntamiento.

**Convenio con la asociación SALAM GAZA para la financiación del proyecto "Ayuda de emergencia humanitaria para la población de Gaza: reparto de agua".** La Corporación municipal aprobó por unanimidad concretar el convenio con la asociación SALAM GAZA para apoyar a esta organización en su proyecto de facilitar el acceso de agua potable a la población de Gaza y para el que ya existe una partida presupuestaria de 10.000 euros.

**Modificación 9 /2026: Creación de partida con destino a la Asociación Apoyos Mutuos.** El Pleno acordó por 14 votos a favor de EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, PSN y Contigo Zurekin y 3 en contra de UPN y PP aprobar una partida presupuestaria de 2.000 euros para el programa "Regularización 2026" de la Asociación Apoyos Mutuos, que tiene como objetivo favorecer los trámites y gastos de la regularización de personas en situación irregular.

**Adhesión al acuerdo del Ayuntamiento de Arguedas para condenar el presunto caso de violencia contra las mujeres ocurrido en la localidad.** La corporación municipal aprobó el acuerdo de adhesión por unanimidad.

**Adhesión a la declaración institucional del Gobierno de Navarra ante el 17 mayo Día Internacional contra la LGTBI+fobia.** El Pleno aprobó por unanimidad la declaración institucional contra la LGTBI+fobia.

**Moción de Contigo Zurekin que recoge y asume la moción presentada por la Asamblea Antipolígono de las Bardenas.** La Corporación municipal aprobó por 13 votos a favor de EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai y Contigo Zurekin, 3 en contra de UPN y PP y 1 abstención de PSN la moción de la Asamblea Antipolígono para solicitar el desmantelamiento del Polígono de Tiro de las Bardenas en el 2028 y apoyar la XXXVI Marcha por el Desmantelamiento del Polígono de Tiro de las Bardenas.

## PLENO ORDINARIO

### 18 DE JUNIO DE 2026

**Aprobación definitiva del PEAU UC-12 parcelas 408 y 409 (entre la calle Ezkaba y Calle Fermín Tirapu 8, antigua residencia de sacerdotes).** En una sesión plenaria a la que asistió toda la Corporación municipal, el Pleno acordó por unanimidad la aprobación definitiva del PEAU UC-12 parcelas 408 y 409.

**Aprobación de acuerdo de remisión del expediente administrativo procedente del recurso de alzada 26-00576 contra el acuerdo del pleno del 27 de enero de 2026 sobre la aprobación definitiva del proyecto de reparcelación de las unidades de ejecución UO-3 y SGV 2 del Plan Municipal y del informe de alegaciones del Ayuntamiento.** La Corporación municipal aprobó por unanimidad este punto.

**Aprobación inicial del expediente de modificación presupuestaria nº 10. Suplemento de crédito para la recuperación ambiental de IONGRAF.** El Pleno aprobó por unanimidad incluir una partida presupuestaria de 160.000 euros para hacer frente al incremento de gastos derivados de la demolición de IONGRAF. En concreto, para paliar los gastos derivados de la eliminación de la cubierta de uralita que resultó ser doble y cuya consignación presupuestaria inicial resultó insuficiente.

**Aprobación inicial del expediente de modificación presupuestaria nº 11. Suplemento de crédito para el acceso al Centro de Salud.** La Corporación municipal aprobó por unanimidad incluir una partida de 76.000 euros para las obras de urbanización de la calle Karrobide (acceso al Centro de salud).

**Aprobación inicial del expediente de modificación presupuestaria nº 12. Crédito generado por ingreso. Préstamo para inversiones deportivas.** El Pleno aprobó por unanimidad solicitar un préstamo de 850.000 euros para distintas inversiones para las instalaciones deportivas.

# Atargi ikastetxe publikoko jostalekuaren naturalizazioa

Irail hasieran, Atargi ikastetxe publikoko jostalekua naturalizatzeko eta bertan itzalguneak sortzeko lanak bukatuko dira.
Lanaren zenbatekoa 157.284,69 € izan da, BEZa barne.
Udalak 40.000 euroko dirulaguntza jaso du Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritza Nagusitik lanak ordaintzen laguntzeko eta, Hezkuntza Departamentuak ere 90.000 euroko dirulaguntza eman du.

# Naturalización del patio del Colegio Público Atargi

A comienzos de septiembre finalizarán las obras de naturalización y sombreamiento del patio del Colegio Público Atargi.
La obra tiene un importe de 157.284,69 €, VA incluido.
Para financiar esta actuación, el Ayuntamiento cuenta con una subvención de 40.000 euros de la Dirección General de Ordenación del Territorio, y otra subvención de 90.000 euros del Departamento de Educación.



## Etxebizitza parkea birgaitzea

Nasuvinsak doako laguntza zerbitzua eskaintzen du jabekideen elkargoetarako eta partikularrendako, eraikinak birgaitzeko prozesuetan (inguratzaile termikoa hobetzea, irisgarritasuna edota instalazio termikoen berrikuntza).

**INFO +**
rehabilita@nasuvinsa.es
848 42 56 03

Zerbitzua abian jarriz, Nasuvinsak birgaitzea bultzatu eta herritarrengana hurbildu nahi du, hurbiltasunez eta era proaktiboan, etxebizitzetako bizigarritasuna, irisgarritasuna eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko.
**Aholkularitza teknikoari** dagokionez, informazio pertsonalizatua eskaintzen da egin litezkeen hobekuntzez, obren tipologiaz, jarduketen kalitateaz eta indarrean den araudiaren betekizunaz.
**Ekonomiaren eta finantzazioaren arloko aholkularitzari** dagokionez, aholkuak ematen dira eskura diren dirulaguntzez, finantzazio aukerez, zerga kontuez, aurrezpen energetikoaz eta izan litezkeen kenkariez.
Era berean, **laguntza sozialeko** zerbitzua eskaintzen da, hau da, laguntza ematen da bizilagun erkidegoen, udalen, finka-administrazioen eta prozesuan ari diren talde teknikoen arteko koordinazioa sustatzeko.
Nafarroan, 4.600 familiaren baino gehiagoren etxebizitzak hobetu dira, Nasuvinsak bultzatu eta laguntzen dituen birgaitze programei esker.

## Rehabilitación del parque residencial

Nasuvinsa ofrece un servicio de acompañamiento gratuito para comunidades de propietarios y particulares durante los procesos de rehabilitación de edificios (mejora de envolvente térmica, accesibilidad o renovación de instalaciones térmicas).

El objetivo de Nasuvinsa con la puesta en marcha de este servicio es impulsar y acercar la rehabilitación a la ciudadanía, de manera cercana y proactiva, para favorecer la mejora de la habitabilidad, la accesibilidad y la eficiencia energética de las viviendas.
En cuanto al **asesoramiento técnico** se ofrece información personalizada sobre las posibles mejoras que se pueden realizar, tipología de obras, calidad de las actuaciones y cumplimiento de la normativa vigente.
En lo que respecta al **asesoramiento económico-financiero** se orienta a las personas interesadas sobre subvenciones disponibles, opciones de financiación, aspectos fiscales, ahorro energético y posibles desgravaciones.
Asimismo, se ofrece un servicio de **acompañamiento social** que incluye apoyo en la coordinación entre comunidades vecinales, ayuntamientos, administraciones de fincas y equipos técnicos implicados en el proceso.
En Navarra, más de 4.600 familias han visto mejoradas sus viviendas gracias a los programas de rehabilitación impulsados y acompañados por Nasuvinsa.

## Haur eskolak bere Zerbitzu Kartako konpromiso guztiak bete ditu

Amalur
ESCUELA INFANTIL HAUR ESKOLA

Amalur haur eskolak berriz ere oso ongi bete du bere Zerbitzu Karta, 2025/2026 ikasturteari dagokiona. Izan ere, konpromiso guztien helburua lortu du, eta familiek 9,26ko nota eman diote ikastetxearekiko duten gogobetetze mailari. Hau da, bi hamarreneko gehiago aurreko ikasturtean baino, azken urteotako goranzko joeraren erakusgarri, kalitatearekiko eta hobekuntza etengabearekiko konpromisoa agerian utzita. Guztira, 60 inkesta jaso dira, eta iruzkinak, oro har, oso onak izan dira, eta era berean, arras informazio baliosa eman dute hobetzen jarraitzeko.
Bete diren konpromisoen artean, nabarmentzekoa da hezitzaile kopurua bete egin dela lerroko, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak ezarritakoarekin bat. Amalurren, 17 hezitzaile daude, eta departamentuak 14ko ratioa ezarria du.
Bestalde, prestakuntza eta birziklapen orduen kopurua ere bete da lanpostua betetzearekin lotutako arloetan. Ezarrita dagoen ratioak 15 ordu proposatzen ditu postuko, eta haur eskolako langileek bana beste 26,76 egin dituzte. Halaber, gehienez 15 egun naturaleko epean erantzun dira jaso diren kexa eta iradokizun guztiak, eta eskolari buruzko informazio guztia hiruhilekoan behin eguneratu da interneten.




## La escuela infantil cumple todos los compromisos de su Carta de Servicios

La escuela infantil Amalur ha vuelto a cumplir con nota su Carta de Servicios durante el curso 2025/2026. Ha alcanzado su objetivo en todos los compromisos adquiridos y las familias han puntuado con un 9,26 su grado de satisfacción general con el centro, una calificación dos décimas más alta que la del pasado curso que muestra la tendencia ascendente de los últimos años y el compromiso con la calidad y la mejora continua. En total, se han recibido 60 encuestas cumplimentadas y los comentarios han sido, en general, muy positivos, y han aportado también información muy valiosa para seguir mejorando.
Entre los compromisos alcanzados destaca el cumplimiento del número de personal educador por línea establecido por el Departamento de Educación del Gobierno de Navarra. En Amalur hay 17 personas educadoras y el ratio fijado por el Departamento se sitúa en 14.
Por otro lado, también se ha cumplido el número de horas de formación y reciclaje en materias relacionadas con el desempeño del puesto. El ratio establecido propone una media de 15 horas por puesto y el personal de la escuela infantil ha realizado 26,76. Asimismo, se han contestado en un plazo máximo de 15 días naturales todas las quejas y sugerencias recibidas y se ha actualizado trimestralmente toda la información de la escuela en Internet.

# Irailaren 16an, Osasun Etxe berria zabalduko da

Aldaira egunetan (hilak 15 eta 16) arreta ere emanen da, baina ez eskatu hitzordurik, larrialdi kasua ez bada.

# El 16 de septiembre se inaugura el nuevo Centro de Salud

Los días de traslado (15 y 16) habrá atención, pero se ruega pedir cita solo en caso de urgencia.



Osasun Etxe berria irailaren 16an zabalduko da ofizialki. Karrobide kaleko etxebizitzen eta Amalur haur eskolaren artean dago eta, guztira, 12.801 bizilagun artatuko ditu: 10.982, familia medikuntzakoak, eta 1.819, pediatriakoak. Osasun Etxeak 20 kontsulta ditu medikuntzarako eta erizaintzarako, eta bost, pediatriarako eta pediatria-erizaintzarako, zortzi kontsulta berezirekin batera: larrialdiak, kirurgia txikiko isolamendua, proba osagarriak, odola ateratzea, etab. Halaber, hiru kontsulta ditu egoiliarrendako. Behe solairuan, larrialdiak, pediatria, prozesu akutuen zirkuitua, harrera eta erabilera anitzeko aretoa daude; eta lehen solairuan, berriz, kontsulta orokor guztiak.

**Hilaren 15ean eta 16an, larrialdiak baizik ez**

Aldaira egunetan (irailak 15 eta 16), herritarrei arreta ere emanen zaie; baina arreta eraginkorra bermatze aldera, Osasun etxeak dei egin du hitzordua larrialdi kasuan bakarrik eskatzeko. Era berean, erabiltzaile guztien laguntza eskatu du, zuhur jokatzeko eta materialak eta errezetak lehenago eskatzeko edo egin beharreko kontsultak aurreratzeko. Halaber, dei egin diete herritarrei irailaren 16an ez joateko Osasun Etxera instalazioak bisitatzera.

El nuevo Centro de Salud se inaugurará oficialmente el próximo 16 de septiembre, Situado entre los edificios residenciales de la calle Karrobide y la escuela infantil Amalur, atenderá a un total de 12.801 pacientes, 10.982 de Medicina de Familia y 1.819 de Pediatría.

El centro dispone de 20 consultas para medicina y enfermería y cinco para pediatría y enfermería de pediatría, además de ocho consultas especiales: urgencias, aislamiento cirugía menor, pruebas complementarias, extracciones, etc. También dispone de tres consultas para residentes. En la planta baja se ubican las áreas de urgencias, pediatría, circuito de procesos agudos, admisión y sala de usos múltiples; y en la planta primera, el conjunto de consultas generales.

**15 y 16, solo las urgencias**

En los días del traslado (15 y 16 de septiembre) se atenderá a la población, pero para hacerlo de manera efectiva, el Centro de Salud hace un llamamiento para que se pida cita solo si se trata de una urgencia. Asimismo, solicita la colaboración de todas las personas usuarias para que sean previsoras y anticipen la petición de material, recetas o consultas que necesiten realizar.

También hace un llamamiento a la ciudadanía para que el día 16 de septiembre no se dirija al Centro de Salud para visitar las instalaciones.

# Karrobide karrika, oinezkoendako

Udalak sustaturik, Karrobide karrikaren alde bat oinezkoendako izanen da. Lanen bidez, Osasun Etxerako sarbide nagusiak azalera handiagoa izanen du, eta gainera, oinezkoek are lehentasun handiagoa izanen dute, ibilgailuen trafikoa moteltzearekin batera.

Osasun Etxeko sarrera hobetzeko, espaloia zabaldu eta plataforma etengabea sortuko da galtzadarekiko; bertan, argiak, hiri-altzariak eta zuhaitzak jarriko dira, itzala sortzeko eta espazio berria atsegina izateko. Horri esker, jendeak segurtasun baldintza ezin hobeak izanen ditu Osasun Etxean sartzeko (pasabidea goratuz eta argiak jarriz, oinezkoari babes eta ikusgarritasun handiagoa ematen zaio) eta irisgarritasun unibertsala bermatuko du.

Errepideari dagokionez, karrika orduko 20 km-ra mugatuko da tarte horretan, edukiontziak birkokatu eta bide-seinale horizontalak eta bertikalak paratuko dira galtzadan, ingurune hori hein batean oinezkoendako dela jakinarazteko.

Lanen zenbatekoa 109.703,73 euro da, guztira. Haietariko 30.000 Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesioko Departamentuaren kontura joanen dira.

# Peatonalización de la calle Karrobide

El Ayuntamiento va a llevar a cabo la peatonalización parcial de la calle Karrobide, una actuación que busca, por un lado, dotar de mayor superficie al acceso principal al Centro de salud y, por otro, reforzar la prioridad peatonal y ralentizar el tráfico de vehículos.

Para mejorar la entrada del Centro de salud se va a ampliar la acera y se va a crear una plataforma continua con la calzada, en la que se instalará alumbrado, mobiliario urbano y árboles que generen sombra y amabilicen el nuevo espacio. Esta actuación permitirá ofrecer unas condiciones de seguridad óptimas para acceder al Centro de Salud (al elevar el paso y añadir iluminación, se da mayor protección y visibilidad al peatón) y garantizará la accesibilidad universal.

En cuanto a la carretera, en este tramo de la calle se limitará la velocidad a 20 km/h, se reubicarán los contenedores y se colocará la señalización viaria vertical y horizontal en la calzada que informe del carácter semipeatonal del entorno.

El importe total de las obras asciende a 109.703,73 euros, de los cuales 30.000 correrán a cargo del Departamento de Cohesión Territorial del Gobierno de Navarra.

# Kamioietarako aparkalekuak Landazabal industrialdean

# Aparcamientos para camiones en el polígono Landazábal

Espazio publikoa optimizatzeko asmoz eta autoek nahiz ibilgailu astunek beren beharretara egokitutako eremuak izan ditzaten eskura, Udalak kamioietarako aparkaleku eremua berregituratu du Landazabal industrialdean. Aurreko azalera murriztu bada ere bidea eraginkortasun handiagoz erabiltzeko, guztira 14 toki egokitu dira: 7 toki, 24 orduetan aparkatzeko, eta beste 7, ibilgailu astunek gauez aparkatzeko.
Bestalde, Udalak gogorarazi du hilerrien arteko zelaian badirela aparkatzeko toki aunitz. Azken hilabeteotan, lekua egokitu baita herriko bizilagunei ibilgailua aparkatzeko beste toki bat eskaintze aldera. Zehazki, eremuko argiztapena hobetu da, farola berriak paratuz, segurtasun kamerak jarri eta atzealdea garbitu da, pasabidea mugatzen zuen landare-hesia ezabatuz, bai eta aparkalekuan sartzeko ezponda ere; orain, loretegia jarri da, eta zuhaitzak landatu eta berdeguneak sortu dira.










Con el objetivo de optimizar el espacio público y garantizar que tanto turismos como vehículos pesados dispongan de zonas adaptadas a sus necesidades, el Ayuntamiento ha reestructurado la zona de aparcamiento para camiones en el polígono Landazábal. Aunque se ha reducido la superficie anterior para un uso más eficiente de la vía, se han dispuesto un total de 14 plazas: 7 de estacionamiento 24 horas y otras 7 destinadas al aparcamiento nocturno de vehículos pesados.
Por otro lado, desde el consistorio recuerdan que la campa de entre cementerios cuenta con numerosas plazas de aparcamiento. Durante los últimos meses se ha adecuado el espacio para ofrecer a los vecinos y vecinas de la localidad una alternativa de estacionamiento. En concreto, se ha mejorado la iluminación del área con la colocación de nuevas farolas, se han instalado cámaras de seguridad y se ha despejado la parte trasera, tras eliminar el seto deteriorado que limitaba el paso así como el talud del acceso, que se ha ajardinado e integrado en el entorno con la implantación de arbolado y zonas verdes.

# Ezkontza zibiletarako prozedura azkarra ezarri da Atarrabian

Atarrabiako Udalak prozedura azkarra ezarri du ezkontza zibilak egiteko. Ohiko prozeduraren aldean, aukera berriak ekitaldi publikoa ezabatu du; beraz, aski da ezkonduko direnak eta lekukoak agertzea. Ekitaldia gaztelaniaz eta euskaraz egin daiteke, eta laburra da, hau da, kode zibileko artikuluak irakurri, adostasuna eman eta aktak sinatzen dira.
Ezkontza zibila udalean eskatzeko (bi modalitateetarako), ezkonduko den batek gutxienez egon behar du erroldatua Atarrabian.

- **Ohiko prozedura.** Ospakizun publiko batekin amaitzen da. Pertsonalizazioen aukera ezkongaien kontura doa (musika, irakurgaiak, dantzak, argazkiak, eraztunen trukea...).
  TASA: 14. ordenantza fiskalean ezarritakoa.
  NOIZ: egunero, goizez eta arratsaldez, igande eta jaiegunetan izan ezik.
  Nork ezkondu: Ahal izanez gero, ezkongaien eskaera hartuko da kontuan.
- **Prozedura azkarra.** Egintza publikorik gabe, izapidea bakarrik.
  TASA: doako zerbitzua
  NOIZ: hileko lehen ostiralean (jaieguna bada, hurrengo ostiral baliodunean). 13:00etatik 14:00etara, 15 minutuko aldietan.
  Nork ezkondu: alkatetzaren erabakia, zinegotzien artean espresuki eskuordetuta.

# Villava incorpora los matrimonios civiles por procedimiento rápido

El Ayuntamiento de Villava ha incorporado el procedimiento rápido a la celebración de matrimonios civiles. Frente al procedimiento ordinario, esta opción elimina el acto público limitándose a la comparecencia de las personas contrayentes y de los/as dos testigos. El acto, a elegir entre castellano y euskera, consta únicamente de la lectura de los artículos del código civil, el consentimiento y la firma de las actas.
Para solicitar la celebración de matrimonio civil en el Ayuntamiento, en cualquiera de las dos modalidades, es necesario que, al menos, una de las personas contrayentes esté empadronada en Villava.

- **Procedimiento ordinario.** Concluye con un acto público de celebración. Opción de personalizaciones a cargo de las personas contrayentes (música, lecturas, bailes, fotografías, intercambio de anillos...).
  TASA: la establecida en la ordenanza fiscal número 14.
  CUÁNDO: todos los días, por la mañana y por la tarde, excepto domingos y festivos.
  CELEBRANTE: Se atenderá, si es posible, la solicitud de las personas contrayentes.
- **Procedimiento rápido.** Sin acto público, solo el trámite.
  TASA: servicio gratuito
  CUÁNDO: el primer viernes de cada mes (en caso de festivo, el siguiente viernes hábil). De 13:00 a 14:00, en periodos de 15 minutos.
  CELEBRANTE: decisión de Alcaldía entre los concejales y concejalas con delegación expresa.



# Hobekuntzak kirol instalazioetan

# Mejoras en las instalaciones deportivas

**Lorenzo Goicoa frontoiaren estalkia**
Toki Administrazioko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiak (Nafarroako Gobernua) 180.000 euroko dirulaguntza eman dio Udalari Lorenzo Goicoa kiroldegiko uralitazko estalkia kentzeko. Kostua, guztira, 354.000 €-koa da. Laguntza Toki Inbertsioen Planeko udal dotazioen programaren baitan dago.

**Induráin anaiak kiroldegiko zola**
Uda honetan egindako hobekuntzen artean, Indurain Anaiak kiroldegiko zola berria aipatu behar da, 102.581,68 €-an, BEZa barne. Irailaren 12rako egonen da prest, egun horretan bere lehen partidua jokatuko baitu etxean Guerreras Eskubaloi Ligako Replasa-Beti Onak taldeak. Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak 15.000 €-ko dirulaguntza eman dio Udalari. Binilozko zoladura da, 9,1 mm-koa, jasangarritasun irizpideekin bat Europan fabrikatua, ingurumen ziurtagiri guztiak dituena, baita nazioarteko eta Europako eskubaloi federazioenak ere.

**Futbol-zelaiko soropila**
Bestalde, futbol-zelaiko soropilaren ordez (15 urte zituen) azken belaunaldiko soropila jartzen ari dira, ingurumen eskakizunetara egokituta (mikrokautxuzko oinarririk gabe, besteak beste). Kostua 445.258,52 €-koa da, BEZa barne, hasiera batean Udalak bere gain hartuta, baina Nafarroako Futbol Federazioaren dirulaguntza bat espero da. Lanak abuztuaren 3an hasi ziren eta urriaren lehen egunetan bukatzea aurreikusten da.

**Igerilekuko beirateak aldatu dira**
Abuztuan jarritako beirate berriei eguzki-argia islatzen duten biniloak paratuko zaizkie. Hobekuntza horrek xx.xxxx euroko kostua eragin du.



**Cubierta del frontón Lorenzo Goicoa**
La Dirección General de Administración Local y Despoblación (Gobierno de Navarra) ha concedido al Ayuntamiento una subvención de 180.000 € para la retirada de la cubierta de uralita del frontón polideportivo Lorenzo Goicoa. El coste total asciende a 354.000 €. Esta ayuda se enmarca en el programa de dotaciones municipales del plan de Inversiones Locales (pIL).

**Suelo polideportivo Hnos. Induráin**
Otra de las mejoras realizadas este verano ha sido la instalación de un nuevo suelo en el polideportivo Hermanos Induráin por un importe de 102.581,68 €, IVA incluido, que estará listo para el 12 de septiembre, fecha en la que Replasa-Beti Onak de la Liga Guerreras de balonmano disputará su primer partido en casa. El Ayuntamiento ha contado con una subvención de 15.000 € del Instituto Navarro del Deporte y de la Actividad Física. Es un pavimento de vinilo de 9,1 mm fabricado en Europa con criterios de sostenibilidad que cuenta con todas las certificaciones ambientales y también con las de las federaciones internacional y europea de balonmano.



**Césped del campo de fútbol**
Por otra parte, se está sustituyendo el césped del campo de fútbol, que tenía 15 años de antiguedad, por un césped de última generación ajustado a exigencias ambientales (sin base de microcaucho, entre otras características). El coste asciende a 445.258,52 €, IVA incluido, asumido en principio por el Ayuntamiento, aunque se está a la espera de una subvención de la Federación Navarra de Fútbol. Las obras comenzaron el 3 de agosto y se prevé que estén terminadas los primeros días del mes de octubre.

**Cambio de cristaleras en la piscina**
Además, a las nuevas cristaleras, instaladas en agosto, se les van a padherir vinilos reflectantes de la luz solar. Esta mejora ha supuesto un coste de xx.xxxx euros.

Solidus
Tecnología e innovación





# BERDEA

## Klima-aldaketara egokitutako Atarrabia berdea eraikitzeko ekimena

## Construyendo una Villava verde y adaptada al cambio climático

Klima-aldaketa azkartzen ari denez, erronka handia du gizarteak. Bero-boladak, suteak eta uholdeak gero eta maizago gertatzen baitira eta, gainera, gero eta handiagoak dira. Horregatik da hain garrantzitsua neurriak hartzea jendea babesteko eta berotze globalaren ondorio kaltegarriak arintzeko. Atarrabiako Udalak urteak daramatza eredu bat lantzen, gure herria klima-aldaketara egokitutako udalerri berdea izan dadin, ingurumenen arloko baldintza berrietara moldatzeko, bero-irlaren efektua murrizte aldera.

La aceleración del cambio climático está poniendo a prueba a la sociedad. Las olas de calor, los incendios o las inundaciones son fenómenos cada vez más frecuentes e intensos. Por eso es tan importante tomar medidas para proteger a las personas y mitigar los efectos adversos del calentamiento global. El Ayuntamiento de Villava lleva años trabajando en un modelo de municipio verde y adaptado al cambio climático, capaz de adaptarse a las nuevas circunstancias medio ambientales para reducir el efecto de isla de calor.

2022an, eta herria naturalizateko eta klima-baldintza berrietara egokitzeko konpromisoaren erakusgarri, Atarrabiako Udalak BERDEA jarri zuen abian, hots, eraldakuntza hori sustatzeko eta gero eta bero zakarragoari aurre egiteko ekimena. Horretarako, bizilagunen bizitza-ingurunean itzalak sortzeko, freskatzeko eta hobetzeko proposamenak egin ziren. Erronka horri ekite aldera, Udalak gizarte, ekonomia eta hezkuntza arloko eragile guztiak inplikatu ditu, bai eta herritarrak ere, denok elkarrekin kultura jasangarrirantz bideratutako udalerri erresilientea lortzeko klima-aldaketaren aurka.



### Emaitzak agerian

Agerikoa da zer-nolako eraldakuntza izan den gure herriko karrika eta plaza aunitzetan, eremu zolatuak gaur egun berdeguneak eta inguru zuhaiztuak baitira. 2022tik 2026ra, izan ere, 557 zuhaitz, 1.825 zuhaixka eta 1.556 landare bizikor landatu dira, eta 101 zuhaitz naturalizatu (gaur egun, soilik inausten dira garatzeko lekurik ez duten aleak). Gainera, egokitzapena burutu ahal izateko, informazio eta partaidetza prozesuak egin dira, 2.158 lagunek eta 58 gizarte eta hezkuntza erakundek parte hartuta. Lau urte honetan, 1.140.689 euro inbertitu dira BERDEA proiektuan, haietariko 872.057 dirulaguntza bidez jasoak.

### Jarduketa nagusiak

Hiru jarduketa nagusi herritarrek eta ikastetxeek parte hartuz burutu dira. Konstituzio plazan, adibidez, Ekogunea sortu da, hau da, baratze-mailaz osaturiko gune bat ikaskuntzarako, harremanetarako eta trukerako. Ardantzea plazan, berriz, azalera zolatu gehiena kendu eta belardiz, zuhaixkaz eta zuhaitzez osaturiko eremu bat jarri da; gainera, erliebe uhinduak egokitu dira jolas naturalerako, eta halako egonlekuak, adineko jendearendako eta familiendako. Eta plaza Gorrietan, klima-aterpeak egin dira, berdegunez osatuak, udarako freskoak. Era berean, herriko hainbat tokitan, euri-lorategiak paratu dira. Drainatze jasangarriko hiri sistema mota bat dira, ur kantitate handiak lur azpirantz era naturalean drainatzeko.

Klima-aldaketa ikastetxeetara ere iritsi da, jostalekuak eta inguruneak naturalizatu baitituzte berdeguneen eta gune jasangarrien bitartez. Ekimena, gainera, Ezkaba mendiraino zabaldu da, lorategi botaniko naturala sortu baita, bai eta ibilbide seinaleztatu bat ere, 100 landare baino gehiago identifikatuta. Inguru hartan, gainera, "ardi suhiltzaileak" aritzen dira bazkan irailean Ezkaba mendiko mendi-hegalak sasiz garbitzeko, sute arriskua murrizte aldera eta bertako bioaniztasuna mantentze aldera.

Azkenaldiko naturalizatze lanak Ricardo Bel karrikan eta Foru plazan egin dira, baina ez dira azkenak izanen, Udalak etorkizunean ere udalerria klima-aldaketarako egokitzen jarraituko duelako.




En 2022 y como muestra de su compromiso por naturalizar la localidad y adaptarla a las nuevas circunstancias climáticas, puso en marcha BERDEA, un proyecto para promover esta transformación y hacer frente al incremento de temperaturas con propuestas orientadas a sombrear, refrescar y mejorar el entorno de vida de la población. Para afrontar este reto, el Ayuntamiento ha involucrado a todos los agentes sociales, económicos y educativos, y a la propia población, con el objetivo de lograr, desde la colaboración conjunta, un municipio resiliente al cambio climático y enfocado hacia una cultura sostenible.

**Resultados visibles**

La transformación que ha experimentado el municipio es visible en muchas calles y plazas, que han convertido sus áreas pavimentadas en espacios verdes y de arbolado. Desde 2022 a 2026, se han plantado 557 árboles, 1.825 arbustos, 1.556 vivaces y se han naturalizado 101 árboles (en la actualidad se podan únicamente los ejemplares que no disponen de espacio para su desarrollo). Además, para llevar a cabo este proceso de adaptación se han realizado procesos informativos y de participación en los que han participado 2.158 personas y 58 entidades sociales y educativas. Durante estos cuatro años se han invertido en el proyecto BERDEA 1.140.689 euros, de los cuales 872.057 euros han sido objeto de subvención.

**Principales actuaciones**

Tres de las actuaciones más relevantes se han llevado a cabo con la participación de la ciudadanía y de los centros educativos. En la plaza de la Constitución se ha creado el Ekogune, un espacio de aprendizaje, socialización e intercambio dotado de bancales; en la plaza Ardantzea se ha sustituido gran parte de su superficie pavimentada por un espacio con praderas, masas arbustivas y de arbolado sobre relieves ondulados para el juego natural y zonas de estar para mayores y familias; y las Plazas Rojas se han convertido en refugios climáticos con áreas verdes y frescas para el verano.

Asimismo, se han instalado por distintos puntos de la localidad los denominados jardines de lluvia, un tipo de Sistema urbano de drenaje sostenible (SUDS) que consigue drenar grandes cantidades de agua, de manera natural, hacia el subsuelo.

La adaptación climática también ha llegado a los centros educativos que han naturalizado sus patios y entornos con áreas verdes y sostenibles; y se ha extendido hasta el monte Ezkaba, donde se ha creado un Jardín botánico natural con un recorrido señalizado que identifica más de 100 especies botánicas y donde todos los meses de septiembre las "ovejas bomberas" se encargan de desbrozar la ladera del monte Ezkaba para reducir el riesgo de incendios y mantener su biodiversidad.

Las actuaciones de naturalización más recientes han sido las de la calle Ricardo Bel y la plaza del Fuero, pero no serán las últimas porque el Ayuntamiento ha emprendido un camino de futuro hacia la adaptación climática.

# Klima-aldaketarako prestakuntza tailerrak lau enplegu sortu ditu

42 eta 67 urte arteko hamabi lagun hasi ziren joan den urtarrilaren 14an klima-aldaketarako eta mugikortasun pertsonalerako prestakuntza tailerraren bigarren edizioan, Nafar Lansarek diruz lagundua. Iazko ikastaroan ez bezala, aurtengoan, ikasitakoa jarri dute parte-hartzaileek praktikan prestakuntza jaso bezain laster. Izan ere, prestakuntza teknikoarekin batera (441 ordu), lanean aritu dira txandaka (687,27 ordu), hau da, hiru astez edo hilabetez eskola teorikoak jaso eta, ondoren, lorezaintza lanak egiten dituzte (sasiak kentzea, inausketa, landare bizikorrak landatzea...), bai eta asfaltatze lanak eta bideko pintura lanak ere (seinaleztapen horizontala) herri osoan barna.

Ongi bete da parte-hartzaileen laneratzea sustatzeko helburua. Izan ere, ekain akaberan, behin prestakuntza teorikoa bururaino eraman ondoren, tailerreko bi pertsona Udalaren deialdira aurkeztu ziren, oporretan lorezaintzako bi peoi lanpostu betetzeko; eta, zerrendan lehenak gelditu eta gero, tailerra utzi eta udal plantillan sartu ziren. Uztail hasieran, bestalde, Antsoaingo Udalak lorazaintzako langileak eskatu zizkion Atarrabiakoari, eta tailerreko bi lagun kontratatu zituzten, Antsoainen lorezaintza lanak uda partean egiteko.

Ikastaroa irailaren 29an bukatuko da eta, hilabetean zehar, gainerako 8 parte-hartzaileek lorezaintza lanak eginen dituzte; zenbaitetan, udal lorezaintzako langileekin batera.

# El taller formativo de adaptación climática ha creado cuatro empleos



Doce personas de entre 42 y 67 años comenzaron el pasado 14 de enero la segunda edición del taller formativo de adaptación climática y movilidad personal, subvencionado por el Servicio Navarro de Empleo. A diferencia del curso pasado, en este sus participantes han podido poner en práctica lo aprendido nada más recibir la formación, ya que han combinado la formación técnica (441 horas) con el trabajo efectivo (687,27 horas) de manera alterna, es decir, durante tres semanas o un mes reciben las clases teóricas y, a continuación, realizan labores de jardinería (desbroce, poda, plantación de vivaces...) y de asfaltado y pintura vial (señalización horizontal) por toda la localidad.

Se ha cumplido satisfactoriamente el objetivo de favorecer la inserción laboral de sus participantes. A finales de junio y con la formación teórica completada, dos personas del taller se presentaron a la convocatoria del Ayuntamiento para cubrir dos plazas de peón de jardinería durante las vacaciones y, tras quedar primeras en las listas, abandonaron el taller y se sumaron a la plantilla municipal. A primeros de julio, el Ayuntamiento de Ansoáin solicitó al de Villava personal de jardinería y dos personas del taller fueron contratadas para desempeñar labores de jardinería en Ansoáin durante la época estival.

El curso concluirá el 29 de septiembre y a lo largo de este mes, los y las 8 participantes restantes llevarán a cabo labores de jardinería que, en algunos casos, se realizarán conjuntamente con el equipo de jardinería municipal.

# EUSKARA | EUSKERA




## Euskaltegietan matrikulatzeko kanpaina

Urtero bezala, Atarrabiako Euskara zerbitzuak kanpaina abiaraziko du helduak euskaltegietan matrikulatzera bultzatzeko. Kanpainan Nafarroako beste hogeita zazpi udal dira lankide, eta Nafarroako euskaltegiekin elkarlanean eginen da (AEK, IKA, Zubiarte Euskaltegi Publikoa, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofiziala), betiere Nafarroako Gobernuak babesturik.
Gainera, azken urteotan bezalaxe, Euskara Zerbitzuak Atargi eta Paz de Ziganda ikastetxeetako gurasoak animatu nahi ditu euskara ikastera. Horretarako gutun bana igorriko zaie, Atarrabiako Udalak IKA Atarrabia euskaltegiarekin batera gurasoentzat berezko zer talde programatu dituen jakinarazteko (goizez eta/edo arratsaldez, 6 edo 8 ordu astean). Gurasoei azalduko zaie, halaber, badagoela Udalaren dirulaguntza jasotzeko aukera, matrikulatzen badira.

## Campaña de matriculación de personas adultas

El Servicio de Euskera de Villava, junto con los servicios de otras veintisiete entidades locales, en colaboración con los euskaltegis de Navarra (AEK, IKA, Euskaltegi Público Zubiarte, Escuela Oficial de Idiomas de Pamplona) y con el patrocinio del Gobierno de Navarra, han puesto en marcha una campaña para animar a las personas adultas a matricularse en los euskaltegis. Además de esta campaña, que constará de carteles y dípticos y difusión en redes, el Servicio de Euskera, al igual que en los últimos años, animará a aprender euskera a los padres y madres de los centros Atargi y Paz de Ziganda, a quienes se enviará una carta con los grupos específicos para ellos programados por el Ayuntamiento junto al euskaltegi IKA Atarrabia (mañanas y/o tardes, 6 u 8 horas semanales). Se les informará, además, de la posibilidad de subvención del Ayuntamiento a los padres y madres que se matriculen.




## Euskarazko aisia eta denbora librea 8-12 urteko haurrentzat

**MATRIKULA, IRAILAren 10etik** (Ribed parkea 1, behea). MATRIKULA, IRAILAren 10etik (Ribed parkea 1, behea). Karrikaluze elkarteak aisia eta denbora librea euskaraz lantzeko jarduerak antolatzen ditu ikasturtean zehar 8tik 12 urtera bitarteko haurrentzat.
Hiru talde dira: TXIKI TXOKO (larunbatetan, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. maila), IGANDERO (igandeetan, 3. eta 4. mailako haurrak); eta JAUZI (igandeetan, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako haurrentzat).
Programen helburua da aisia eskolatik kanpo euskaraz bizitzeko aukera ematea haur eta gazteei, jolasen, tailerren eta kontsumoari lotuta ez dauden beste jarduera batzuen bidez. Gainera, beste ikastetxe batzuetako ikasleak ezagutzeko eta adiskide berriak egiteko parada ematen zaie.
Info+: **948355739 / 685115756**.

## Ocio y tiempo libre en euskera para niños y niñas de 8 a 12 años

**MATRÍCULA, DESDE EL 10 DE SEPTIEMBRE** (parque Ribed 1, bajo). La Asociación Karrikaluze organiza durante el curso, con subvención municipal, actividades de ocio y tiempo libre en euskera dirigidas a la población infantil de entre 8 y 12 años.
Hay tres grupos: TXIKI TXOKO (los sábados, alumnado de 1º y 2º de Primaria), IGANDERO (los domingos, niños y niñas de 3º y 4º); y JAUZI (los domingos, para niños y niñas de 5º y 6º de Primaria).
El objetivo de estos programas es ofrecer a la población infantil y juvenil la oportunidad de vivir el ocio en euskera, fuera del ámbito escolar, a través de juegos y talleres y otras actividades no ligadas al consumo. Además, se les da la oportunidad de conocer a alumnado de otros centros educativos y de hacer nuevas amistades.
+Info: **948355739 / 685115756**.




# Mintzakide, euskaraz mintzatzeko tarteak

Irailean ireki da **Mintzakide**ko formatuetan izena emateko epea. Taldeak antolatzen dira, astean behin edo bitan elkartzeko, euskaraz mintzatze aldera, mintzamena lantzeko, alegia. **Gurasolaguna** ekimena, gainera, haurrak zaintzeko ordutegi eta beharretara egokitzen da.
Hainbat irizpide hartzen dira kontuan taldeak osatzeko, hala nola ordutegiak, adinak, auzoa eta zaletasunak, betiere parte-hartzaileen beharretara egokituta. Baita online ere.
Horrenbestez, aukera aproposa da euskaltegian ikasitakoa gogoan hartzeko eta mintzamena lagun giroan lantzeko eta, bidenabar, harremanak sakontzeko edo egiteko. Horrez gain, on egiten zaio euskalduntzeari, euskaraz mintzatzeko ohitura zabaltzen duelako, hizkuntza ohituretan eragiten duelako eta euskara toki gehiagotan hitz egiteko aukera ematen duelako.
Argibideak: **irunerrikomintzakide.eus / Karrikaluze Elkartea**.

# Mintzakide, espacios para practicar euskera

En septiembre se abrió el plazo de inscripción para participar en los diversos formatos de **Mintzakide**. Se trata de organizar grupospara quedar una o dos veces por semana para practicar conversación en euskera. La variante **Gurasolaguna** se adapta a los horarios y necesidades por el cuidado de los niños y niñas.
Los grupos de Mintzakide se forman atendiendo a horarios, edades, barrio y aficiones, adaptándolos a las necesidades de las personas participantes. Incluso on line.
Esta fórmula propicia la práctica de lo aprendido en el euskaltegi en un ambiente amigable, reforzando relaciones existentes o dando lugar a nuevas. Y no sólo eso, es también una manera de aportar a la euskaldunización, ya que extiende esta costumbre en el entorno, incidiendo en los hábitos lingüísticos y ganando espacios y oportunidades para practicar el euskera.
Más información: **irunerrikomintzakide.eus / Karrikaluze Elkartea**.

# Udal laguntzak euskarazko udalekuetarako

**UDAL LAGUNTZAK EUSKARAZKO UDALEKUETARAKO.** Eskaerak irailaren 14tik urriaren 2ra. Irailaren 14an zabalduko da euskarazko haur udalekuen prezioa ordaintzen laguntzeko udal laguntza eskatzeko epea, urriaren 2ra arte.
Eskabideak udal erregistroan aurkeztu behar dira.
Baldintza guztiak udal webean daude eskura.
Zalantzak argitzeko, jo Euskara Zerbitzura (948 13 66 80 / euskara.atarrabia@villava.es)
Honatx baldintza batzuk:
- Lehen Hezkuntzako edo DBHko ikaslea izatea.
- D ereduko ikasleak (eskola publikoan edo ikastolan).
- Atarrabian edo Ezkabarten erroldatua egotea.

# Ayudas municipales para campamentos de verano en euskera

**SOLICITUDES, DEL 14 DE SEPTIEMBRE AL 2 DE OCTUBRE.** El plazo que tienen las familias para solicitar ayuda municipal para costear el precio de los campamentos infantiles de verano en euskera se abre el 14 de septiembre y finaliza el 2 de octubre. Las solicitudes hay que presentarlas en el Registro del Ayuntamiento, mediante instancia firmada. El condicionado completo se puede consultar en la web del Ayuntamiento. Para aclarar dudas, hay que ponerse en contacto con el Servicio de Euskera (948 13 66 80 / euskara.atarrabia@villava.es)
Algunos requisitos son:
- Estudiantes de Primaria o ESO.
- Estudiantes de modelo D (en escuela pública o ikastola)
- Empadronamiento en Villava o Ezkabarte.

**Anúnciate en el Boletín de información municipal de Villava**
✆ 948 13 67 66
4.400 ejemplares / ale
PERIODICIDAD/MAIZTASUNA: bimestral / bi hilabetekoa
**Zure iragarkia Atarrabiako udal informazio aldizkarian**



FRENAUTO
FRENOS DEL AUTOMOVIL
Ricardo Bel, s/n
Tel. 948 33 24 33
31610 VILLAVA



Ekimenak MECNA ezaugarria eskuratu du Nafarroako Gobernutik. Ekimenaren mezenas egiten direnek zerga kenkari garrantzitsuak izanen dituzte, Kultur Mezenasgoari buruzko Foru Legean aurreikusitakoarekin bat.

mecna
MECENAZGO CULTURA NAVARRA
MEZENASGOA KULTURA NAFARROA

EGIN ZAITEZ MEZENAS!
¡HAZTE MECENAS!
info+: cultura@villava.es

Este proyecto ha obtenido del Gobierno de Navarra la distinción MECNA. Las personas que se sumen a él como mecenas se beneficiarán de las importantes desgravaciones fiscales que prevé la Ley foral de Mecenazgo Cultural.

# "Mitoen oihartzunak kantata" estreinatuko da Atarrabian

Ikuskizuna urriaren 24an eta 25ean emanen da antzokian, Kultur Etxearen XV. urtemugaren ospakizunari bukaera emateko.

**URRIAK 24, LARUNBATA (19:30) eta URRIAK 25, IGANDEA (12:00 eta 19:30), ANTZOKIA, 10 € (SARRERAK SALGAI MEZENAS EZ DIRENENDAKO, URRIAREN 1ETIK AITZINA.** "Mitoen oihartzunak kantata" gure mitologiari buruzko euskal kantata berria da, Iñigo Casalik korurako, orkestrarako eta laukote bakarlarirako konposatua eta Julio Soto bertsolariak idatzia. 14 atalek gure antzinako kultur osagai garrantzitsu bat gogorarazi edota erakutsi nahi digute, gure aspaldiko pertsonaia mitologikoen ingurukoa, hala nola Lamiak, Basajaun, Sorginak, Atarrabi, Galtzagorriak eta Mari.

**PARTE-HARTZAILEAK**
Atarrabia Abesbatza, Iruñeko Hiria Orkestra, laukote bakarlari bat: Marta Huarte (sopranoa), Julen Jiménez (tenorra), Leticia Vergara (mezzosopranoa) eta Sabino Pérez de Ziriza (baritonoa); Itziar Pérez de Ziriza pianista; Igor Martínez txistulari eta albokaria. Iñigo Casalí da konpositorea eta musika-zuzendaria, eta Julio Sotoa, letragilea.

# Estreno en Villava de "Mitoen oihartzunak kantata"

El espectáculo, en el teatro los días 24 y 25 de octubre, cerrará la programación especial con la que la Casa de Cultura está celebrando su XV Aniversario.

**PARTICIPANTES**
Coral Atarrabia Abesbatza, Orquesta Ciudad de Pamplona, un cuarteto solista integrado por (Marta Huarte (soprano), Julen Jiménez (tenor), Leticia Vergara (mezzosoprano) y Sabino Pérez de Ziriza (barítono); la pianista Itziar Pérez de Ziriza; y el Txistulari y albokari Igor Martínez. Iñigo Casalí es el compositor y director musical, y Julio Soto, el autor de la letra.

**SÁBADO 24 (19:30) y DOMINGO 25 DE OCTUBRE (12:00 y 19:30), TEATRO, 10 € (ENTRADAS A LA VENTA PARA NO MECENAS, DESDE EL 1 DE OCTUBRE.** "Mitoen oihartzunak kantata" es una kantata en euskera de nueva creación sobre nuestra mitología compuesta para coro, orquesta y cuarteto solista por Iñigo Casalí, y escrita por el bertsolari Julio Soto. Sus 14 números pretenden recordarnos en unos casos, o dar a conocer en otros, una parte importante y menos tangible de nuestra cultura ancestral protagonizada por personajes mitológicos como Lamiak, Basajaun, Sorginak, Atarrabi, Galtzagorriak o Mari.




## LIBURUTEGIKO NOBEDADEAK | NOVEDADES BIBLIOTECA

**HELDUAK / ADULTOS**

✔ SAROYAN, William **Tu es que estás loco, papá.** Pamplona: Eunsa, 2025. 211 p.

✔ MARTOS MOLINA, Marta. **11 bitxilore.** Amorebieta-Etxano: Ibaizabal. 2026. 171 p.

✔ LERIN, Javier. **El círculo de ceniza.** Barcelona: Suma, 2026. 425 p.

**HAURRAK-GAZTEAK / INFANTIL-JUVENIL**

✔ MARTÍN ÁLVAREZ, Ibon **La sombra del dragón** Donostia: Travel Bug, 2026. 141 p.

✔ MAESTRO, Pepe. **Bioandereñoa.** Amorebieta-Etxano: Ibaizabal. 2026. 106 p.

✔ TIRADO, Míriam. **¡Vaya lio Goa!** Barcelona: B de Blok, 2026. 307 p.



# Dantza garaikidea Ribed parkean

# Danza contemporánea en el parque Ribed

**IRAILAK 29, ASTEARTEA, 18:30, RIBED PARKEA (EURIA EGITEN BADU, KULTUR ETXEKO ANTZOKIAN); SARRERA LIBREA.** iXa dantza konpainiak (Xián Martínez, Paula Urquijo eta Elena Castellanos) dantza garaikideko hiru pieza laburreko programa (15 minutu) aurkeztuko du Atarrabian, hiruak aurreko proiektuetatik atereak. "3 historias de dos" izenburupean bildurik, iXA taldeak bikote moldean dantzatuko du "Pioneras". Lehen piezak emakumezkotasunaren erreferente toxikoak jorratzen ditu gizateriaren historian zehar. "Ollos cara adentro" pieza, berriz, amets egitearen egintzan barneratzen da, XX. mendearen hasierako artista surrealisten ikuspegitik begiratuta. Eta "Con/Sin/In-TACTO"k, azkenik, bi pertsonaren arteko istorio afektiboa ekarriko digu, harremanaren hasieratik amaitzen den arte. Ikuskizuna gazteendako eta helduendako da.

**29 SEPTIEMBRE, MARTES, 18:30, PARQUE RIBED (EN CASO DE LLUVIA, EN EL TEATRO DE LA CASA DE CULTURA); ENTRADA LIBRE.** La compañía de danza iXa (Xián Martínez, Paula Urquijo y Elena Castellanos) presentará en Villava un programa de tres piezas cortas (15 minutos) de danza contemporánea extraídas de proyectos anteriores. Reunidas bajo el título "3 historias de dos", la compañía bailará en formato dúo "Pioneras", obra que aborda los referentes tóxicos de lo femenino a lo largo de la historia de la humanidad; "Ollos cara adentro," que se adentra en el acto de soñar desde la visión de los artistas surrealistas de principios del siglo XX; y "Con/Sin/In-TACTO", que nos acerca la historia afectiva de dos personas desde su inicio hasta el final de su relación. Espectáculo dirigido a público joven y adulto.

# Hodei Magoa, 360º-ko ilusionismoa

# Mago Hodei, ilusionismo 360º

**URRIAK 17, LARUNBATA, 4 SAIO, HAURRAK ETA HELDUAK, EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ, 5 €, KULTUR ETXEKO ANTZOKIA.** Hodei magoak "3 elementu" saioa aurkeztuko digu, hots, esperientzia magiko murgilgarria da, publikoa ilusionistaren inguru osoan dagoela. Hiru elementuok sormena, ikusmina eta grina dira, hiruekin ere jaiotzen baikara, baina hazi ahala galtzen ditugu. Proposamen honetan, ilusionismoak ikusleen irudimena, fantasia eta harrimena piztuko ditu, oroitzapen eta bizipen partekaturako tarte bat irekita. Saioak 40 minutu iraunen du eta ikusleak eserita egonen dira aulkietan, agertoki gainean (gehienez, 40 lagun saio bakoitzeko).




**SAIOAK / FUNCIONES**

**17:00** 7 urtetik gorako publiko familiarra, gaztelaniaz / público familiar desde 7 años (castellano)
**18:00** 7 urtetik gorako publiko familiarra, euskaraz / público familiar desde 7 años (euskera)
**19:00** helduak, gaztelaniaz / público adulto (cast.)
**20:00** helduak, euskaraz / público adulto (eus.)

**17 OCTUBRE, SÁBADO, 4 SESIONES, INFANTIL Y PERSONAS ADULTAS, CASTELLANO Y EUSKERA, 5 €, TEATRO DE LA CASA DE CULTURA.** El mago Hodei nos presentará "3 elementos", una experiencia mágica inmersiva con el público rodeando completamente al ilusionista. Esos tres elementos son la creatividad, la curiosidad y la pasión, tres facultades con las que nacemos, pero que vamos perdiendo conforme crecemos y aprendemos. En esta propuesta, el ilusionismo despertará la imaginación, la fantasía y la capacidad de asombro del público, abriendo un espacio de memoria y experiencia compartida. En la función, de 40 minutos, el público se sienta sobre el escenario (máximo 40 personas por pase).




**IZEN EMATEA / INSCRIPCIONES**
irailaren 18ra arte /
hasta el 18 de septiembre
948 012 012 (8:00 - 18:00)
eta / y ON LINE (qr)

# Haurrendako udal tailerrak

# Talleres infantiles municipales

Kultura Zerbitzuak haurrendako udal tailerrak antolatu ditu ikasturte honetan ere **16 urtera** arteko haur eta gaztetxoendako, **antzerkia**, **adierazpen plastikoa** eta **euskal dantzak** lantzeko. Eskolak urriko 3. astean hasi eta 2027ko maiatzeko 3. astean amaituko dira. Atarrabian erroldatutako haurrek dute izena emateko aukera, bai eta gure herriko ikastetxeetan ikasten dutenek ere (Lorenzo Goicoa, Atargi eta Pedro de Atarrabia Institutua). Tokiak izen-ematearen hurrenkeraren arabera banatuko dira.
Matrikularen kostua 83 € da antzerkirako, adierazpen plastikorako eta euskal dantzetarako (Lehen Hezkuntza); eta 134 €, euskal dantzetarako (LHko 6. maila eta DBHko 1. eta 2. mailak).
Eskaneatu QRa eta eskaintza osoa izanen duzu eskura, bai eta ordutegiak, hizkuntzak eta izen-ematea ere.

El Servicio de Cultura ha organizado un curso más los talleres de **teatro**, **expresión plástica** y **danzas vascas** para niños y niñas de **hasta 16 años**. Las clases comenzarán la 3ª semana de octubre y finalizarán la 3ª semana de mayo de 2027. Pueden optar a plaza los niños y niñas empadronadas en Villava o que estudien en los centros públicos de la localidad (Lorenzo Goicoa, Atargi e Instituto Pedro de Atarrabia). Las plazas se otorgarán por orden de inscripción.
El coste de la matrícula es de 83 € para teatro, expresión plástica y danzas vascas (Primaria): y 134 € para danzas vascas (6º Primaria y 1º y 2º de Secundaria).
Escanea el QR para acceder a la oferta completa, horarios, idiomas e inscripción.

# KULTURA | CULTURA




## Kulturak memoria digital batean bildu du 2025eko bere jarduera

## Cultura recoge su actividad de 2025 en una memoria digital

**Kultura Zerbitzuak 2025eko Jarduera Memoria argitaratu du, herritarren aurrean gardentasunez jokatzeko eta kontuak emateko. Dokumentuak denetariko informazioa eta datuak eskaintzen ditu; besteak beste, zenbat jende joan den ekitaldietara edota nork, noiz eta zertarako erabili diren Kultur Etxeko aretoak eta antzokia**

**El Servicio de Cultura ha editado una Memoria de actividad de 2025 como un ejercicio de transparencia y rendición de cuentas ante la ciudadanía. El documento ofrece una gran variedad de información y datos, entre ellos de asistencia a los actos programados y el uso de las salas y del teatro de la Casa de Cultura**

**Memoriako grafiko batzuk orrialde honetara ekarri ditugu. Agiri osoa eskuratzeko, eskaneatu QR hau:**

**Reproducimos en esta página algunos gráficos de la memoria. Accede al documento completo escaneando el QR.**

### Gelen erabilera kop. jarduera motaren arabera / Nº usos de las salas por tipo de actividad

| | |
|---|---|
| Ikastaroak / Cursos | 2.096 |
| Antzerki entseguak / Ensayos teatro | 103 |
| Musika entseguak / Ensayos música | 543 |
| Dantza entseguak / Ensayos danza | 77 |
| Bilerak / Batzarrak / Hitzaldiak / Reuniones, asambleas, conferencias | 306 |
| Bestelako erabilerako (ikasketa gela) / Otros usos (sala estudio) | 182 |
| Guztira / Total | **3.307** |

### Antzokiaren okupazioa % / % ocupación del Teatro

| | Ekitaldiak / Eventos | Ikusleak / Asistentes | % antzokiaren okupazioa / % de ocupación |
|---|---|---|---|
| Zine-foruma emakumea / Cine fórum mujer | **7** | 459 | 23 % |
| Dokumentalak / Documentales | **3** | 120 | 14 % |
| Dantza / Danza | **5** | 949 | 65 % |
| Magia | **2** | 326 | 56 % |
| Antzerkia (gaztelaniaz) / Teatro (castellano) | **46** | 7.971 | 60 % |
| Antzerkia (euskaraz) / Teatro (euskera) | **13** | 1.864 | 50 % |
| Antzerkia (testurik gabe) / Teatro (sin texto) | **1** | 289 | 99 % |
| Musika / Música | **26** | 5.589 | 74 % |
| Guztira / Total: | **103** | **17.567** | |

### Antzokiaren erabilera kop. jarduera motaren arabera / Nº de usos del teatro por tipo de actividad

| | |
|---|---|
| **Ikuskizunak / Espectáculos** | **105** |
| Antzerkia / Teatro | 71 |
| Dantza / Danza | 6 |
| Musika / Música | 28 |
| **Zinema (ikus-entzunezkoak) / Cine / audiovisuales** | **20** |
| **Hitzaldiak, solasaldiak… / Conferencias, charlas…** | **14** |
| **Entseguak / Ensayos** | **55** |
| Antzerkia / Teatro | 40 |
| Musika / Música | 11 |
| Dantza / Danza | 4 |
| Guztira / Total: | **194** |

### Kultur Etxeko kultur ekitaldietan izandako pertsona kop. / Personas asistentes a actos culturales en Casa de Cultura

| Arloa / Disciplina | Ekitaldi kop./ Nº eventos | Ikusleak/ Asistentes |
|---|---|---|
| Zinema / Cine | 20 | 953 |
| Ahozko narrazioa / Narración oral | 13 | 248 |
| Liburu aurkezpenak / Presentación de libros / | 2 | 137 |
| Dantza / Danza | 5 | 949 |
| Magia | 2 | 326 |
| Antzerkia / Teatro | 60 | 10.124 |
| Musika / Música | 26 | 5.589 |
| Erakusketak / Exposiciones | 10 | 6.880 |
| Guztira / Total: | **138** | **25.206** |

## JARDUKETA LERROAK

- Jendeak kultura eskuratzeko sarbidea sustatzea, ekitaldi sorta zabalaren bidez: antzerki, musika eta dantza ikuskizunak, arte plastikoei buruzko erakusketak, irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak, zinematografia eta bestelako arte adierazpenak;
- Herriko kultur dinamika sendotzea, arte erakundeekiko hitzarmenen nahiz hitzarmen izendunen bidez, bai eta jarduerei laguntzak emanez ere; halaber, herriko erakundeek eta sortzaileek sustatutako ikuskizunei lekua ematea Kultur Etxeko kultur eskaintzan
- Jendearen sormen ahalmenak garatzea, prestakuntza ez-arautua emanez sormenezko aisia ikastaro eta tailerren bitartez;
- Ondare immateriala babestu eta erakustea, memoria historikoa berreskuratzea eta herriaren nortasunaren balioa nabarmentzea;
- Kultura euskaraz bizi eta gozatzea ahalbidetuko duen kultur eskaintza erakargarria sustatzea;
- Kultur programazioetan genero berdintasuna eta kultur aniztasuna txertatzea.

## LÍNEAS DE ACTUACIÓN

- Fomentar el acceso a la cultura a través de una oferta amplia de espectáculos de teatro, música y danza, de exposiciones de artes plásticas, de actividades de animación a la lectura, de programación cinematográfica y de otras expresiones artísticas
- Fortalecer la dinámica cultural local a través de convenios con entidades artísticas, convenios nominativos, ayudas a actividades, así como incentivar la presencia de espectáculos promovidos por entidades y creadores locales en la oferta cultural de la Casa de Cultura
- Desarrollar las potencialidades creativas de las personas ofreciendo formación no reglada a través de cursos y talleres de ocio creativo
- Preservar y transmitir el patrimonio inmaterial, recuperar la memoria histórica y poner en valor la identidad local
- Fomentar una oferta cultural atractiva que permita vivir/disfrutar de la cultura en euskera
- Incorporar en las programaciones culturales la igualdad de género y la diversidad cultural

# ATARRABIAKO EGUNA














# GIZARTE ZERBITZUAK | SERVICIOS SOCIALES

## Aparteko epea jantoki-beka eskatzeko, herrian bizi diren familia berriendako

Irailaren 21etik 30era, aparteko epea irekiko da jantoki-beka eskatzeko, baina bakarrik ekainaren 1etik irailaren 20ra oinarrizko eskualdera bizitzera etorri diren familiendako. Udal erroldaren bidez frogatu behar dute herrian bizi direla.
Jantoki-beka Udalak ematen du, Atarrabian eta Ezkabarten erroldatutako familien haurren eskola-jantokiaren kostua ordaintzeko. Atarrabian kokaturiko ikastetxeetan haur eta lehen hezkuntzan ari direnentzat da. Familiek, oinarrietan xedatutako baremoak bete behar dituzte.
Abuztuan, ohiko epean aurkeztutako eskariak baloratu ziren.
Udal bekarekin batera, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak ematen dituenak jaso daitezke.
Zalantzarik izanez gero, familiek Atarrabiako Udaleko Gizarte Zerbitzura jotzen ahal dute edo, bestela, erreferentziazko ikastetxeko idazkaritzara.

## Plazo extra para solicitar beca-comedor dirigido a nuevas familias residentes

Del 21 al 30 de septiembre se abre un plazo extraordinario para solicitar beca-comedor exclusivamente para familias que se hayan trasladado a la zona básica entre el 1 de junio y el 20 de septiembre. Esta circunstancia deberá quedar acreditada a través del padrón municipal.
Las becas-comedor son una ayuda económica municipal para sufragar el coste del comedor escolar de menores en etapas de Infantil y Primaria de familias empadronadas en Villava y Ezkabarte que estudian en centros escolares ubicados en Villava. Las familias deben y cumplir los baremos económicos estipulados en las bases.
En agosto se valoraron  las solicitudes presentadas en el plazo ordinario.
Esta beca es subsidiaria de otras becas del Departamento de Educación del Gobierno de Navarra que pudieran corresponder a las familias.
En caso de duda, las familias pueden ponerse en contacto con el Servicio Social del Ayuntamiento de Villava o con la secretaría del centro escolar de referencia.





## Hiri udalekuak: kontziliazioa, gozamena eta ikaskuntza

Uztailaren 15etik abuztuaren 31ra, hiri udalekuen hiru txandak egin dira Kultur Etxean gaztelaniaz eta euskaraz, Udalak 2014tik 2022ra bitartean jaiotako haurrentzat antolatuak. Euskarazko taldeak Karrikaluzek kudeatu ditu, eta, gaztelaniazkoak, Sedenak.
Txanda bakoitza bi astekoa izan da, goizetan, astelehenetik ostiralera (8:30etik 14:30era). 64 haurrek parte hartu dute euskarazko jardueretan, eta 72k, gaztelaniazkoetan.
Udal programaren helburua da familia-kontziliazioa erraztea eta bestelako aisia, jolas moldea eta ikaskuntza eskaintzea haurrei, hainbat jardueraren bidez: tailerrak, jolasak, eskulanak, igerilekua eta ingurunea ezagutzeko ateraldiak.





## Colonias urbanas: conciliación, disfrute y aprendizaje

La Casa de Cultura acogió del 15 de julio al 31 de agosto las tres chandas de colonias urbanas en castellano y euskera organizadas para este verano por el Ayuntamiento para niños y niñas nacidas entre los años 2014 y 2022. Los grupos de euskera los ha gestionado Karrikaluze, y los de castellano, Sedena.
Las chandas fueron de dos semanas cada una y por las mañana de lunes a viernes (de 8:30 a 14:30). Participaron 64 niños y niñas en las actividades en euskera y 72 niños y niñas en las de castellano.
El objetivo de este programa municipal es facilitar la conciliación familiar y ofrecer una alternativa de ocio, diversión y aprendizaje a niñas y niños mediante diferentes actividades, como talleres, juegos, manualidades, piscina y salidas al entorno.







# Festetako jarduerak 15-17 urteko gazteentzat

# Actividades en fiestas para jóvenes de 15 a 17 años

**Lehen aldiz, 15-17 urtekoendako jarduerak sartu dira festen egitarauan. Horrela, belaunaldien arteko mus txapelketa antolatu da, eta urriaren 5ean, bazkaria eta DJak.**

## Belaunaldien arteko I. mus txapelketa

65 urtetik gorakoendako eta 15-17 urteko gazteendako da. Horrela, irailaren 7tik 18ra, eskolak antolatu ziren musean ikasteko, eta irailaren 22tik urriaren 2ra, partidak jokatuko dira. Finalaurrekoak eta finala urriaren 2an izanen dira, eta urriaren 5ean, sari banaketa.

## I Torneo de Mus Intergeneracional

Para personas mayores de 65 años y juventud de 15 a 17 años. Del 7 al 18 de septiembre se organizaron clases para aprender y del 22 de septiembre al 2 de octubre serán las partidas. La semifinal y final serán el 2 de octubre, y el 5 la entrega de premios.

**Por primera vez se incluyen en el programa de fiestas actividades específicas para el tramo de edad 15-17 años. Se ha organizado un torneo de mus intergeneracional, y el día 5 habrá comida y DJs.**

## Bazkaria eta musika

Lehen aldiz, berezko otordu bat egonen da 15-17 urte arteko gazteentzat. Urriaren 5ean izanen da Atarrabia pilotalekuan, 15:00etan hasita, institutuko irteera ordua errespetatzeko. Irailaren 15etik 28ra, sarrera jaso eta ordaindu daiteke pilotalekuko tabernan (5 €, NANa aurkeztu behar da). Pilotalekua kerik, alkoholik eta bestelako substantziarik gabeko gunea da. 16:15ean, mus txapelketako sariak banatu, eta 16:30etik 18:00etara, DJ Potota Frexkok & Frazido Fonkik jarriko dute musika.

## Comida y música

Por primera vez habrá comida específica para la juventud de 15 a 17 años. Será el día 5 en el frontón Atarrabia y a las 15:00, para respetar la hora de salida del instituto. Del 17 al 28 de septiembre se puede recoger y pagar la entrada en el bar del frontón (5 €, hay que presentar el DNI). El frontón es un espacio libre de humo, alcohol y otras sustancias. A las 16:15 se entregarán los premios del torneo de Mus y de 16:30 a 18:00 pincharán DJ Potota Frexko & Frazido Fonki.



## Gaztefesta, urriaren 9an (12-15 urte)

Urriaren 9an, Gaztefesta ospatuko da Fruta-arbolen pasealekuan, 12-15 urteko gazteendako (2014-2011). 2025eko jaietan bezala, futbol, eskubaloi eta saskibaloi mundialitoaren finalak jokatuko dira, bai eta ping-pong eta futbolin txapelketakoak ere, irailaren bigarren hamabostaldian eginen diren kanporaketen ondotik. Finalak 17:00etatik 19:30era izanen dira. Gero, puzgarriak, 21:00ak arte (Wipeout puzgarri erraldoia 4 probarekin + zezen mekanikoa + gladiadore jokoa); ogitarteko festa (aurrez, txartela Gaztelekun erosia, irailaren 21etik urriaren 2ra, 5 euroan: ogitartekoa, zukua eta alkoholik gabeko koktela barne); eta karaokefest, Xaiborren eskutik, 23:30era arte.

### Mundialitoa, ping-pong eta futbolina

**3x3 mudialitoak (futbola, eskubaloia eta saskibaloia)** 3 kategoria izanen ditu: 2014-2013 / 2012-2011 eta 2010-2009. Parte hartzeko kuota 2 € izanen da talde mistoentzat, eta 4,5 €, mistoak ez direnentzat. Kanporaketa partiduak irailaren 18an, 19an, 20an, 25ean, 26an eta 27an jokatuko dira. Talde irabazleak 60 euroko txartel bat jasoko du kirol gaietan edota gazte aisiarako txartela Eguberrietarako.
Urriaren 9an, arratsaldez, **ping-pong eta futbolin** txapelketetako finalak jokatuko dira (2014-2013 / 2012-2011 / 2010-2009 kategoriak). Izena banaka eman behar da eta euro bateko kostua du. Aurretiazko txapelketa irailaren 25etik 27ra eginen da. Final irabazleek bi sariren artean aukeratuko dute: Eguberriko gazte aisiarako txartela edota zubi foralerako txartela.

## Gaztefesta, el 9 de octubre (12-15 años)

El 9 de octubre se celebrará en el Paseo de los Frutales la Gaztefesta, una programación dirigida a jóvenes de 12 a 15 años (2014-2011). Como en las fiestas de 2025, se celebrarán las finales del mundialito de fútbol, balonmano y baloncesto y de los torneos de ping-pong y futbolín, tras los torneos eliminatorios disputados la segunda quincena de septiembre. Las finales serán de 17:00 a 19:30. Después habrá hinchables hasta las 21:00 (hinchable gigante Wipeout con 4 pruebas + toro mecánico + juego gladiadores); bocatada (previa compra de ticket en el Gazteleku del 21 de septiembre al 2 de octubre con un coste de 5 euros, que incluye bocata, zumo y cóctel sin alcohol); y karaokefest con Xaibor hasta las 23:30.

### Mundialillo, ping-pong y futbolín

El **mundialillo 3x3 (fútbol, balonmano y baloncesto)** tendrá 3 categorías: 2014-2013 / 2012-2011 / y 2010-2009. La cuota por participar será de 2 € en el caso de equipos mixtos y 4,5 € en el caso de los no mixtos. Los partidos eliminatorios serán los días 18, 19, 20, 25, 26 y 27 de septiembre. El equipo ganador recibirá un vale de 60 € en material deportivo o un bono ocio joven para Navidad.
También se disputarán la tarde del 9 de octubre las finales de los torneos de **ping-pong y futbolín** (categorías 2014-2013 / 2012-2011 / 2010-2009). La inscripción es individual y tiene un coste de un euro. El torneo previo se celebrará los días 25, 26 y 27 de septiembre. Quienes ganen las finales elegirán entre dos opciones de premio: un bono ocio joven Navidad o bono para el puente foral.

## 394 gazte joan dira Jaibusean jaietara




Uda honetako jaibusak sekulako arrakasta izan du. 394 gaztek (211 neska eta 183 mutil) erabili baitute beste herri batzuetako festetara joateko. Guztira, zortzi autobus atera ziren Atarrabiatik: bi, Garesera; beste bi, Larraintzarrera; hiru, Agoitzera, eta bat, Aurizberrira. Ateraldi bakoitzean, gazte batzuek arduradun lana egin zuten, horrela zerbitzua ahalbidetuta.
Horrez gain, ehun gazte inguruk parte hartu dute alkoholari, tabakoari/bapeoari eta kalamuari buruzko inkestetan, programaren barnean. Haietan ikusi da gazteriaren zati batek ez dakiela alkoholak depresio-efektua eragiten duela nerbio-sisteman (nahiz eta dosi txikietan kontrakoa suma daitekeen) eta ez dutela baperrik partekatu behar, hainbat gauza kutsa daitezkeelako, hala nola herpesa, mononukleosia eta katarroak.

## 394 jóvenes se desplazaron a fiestas en Jaibus

Este verano el jai-bus ha sido todo un éxito. 394 jóvenes (211 chicas y 183 chicos) se han desplazado a otras localidades en fiestas en Jaibus. Se fletaron ocho autobuses desde Villava/Atarrabia: dos a Puente la Reina/Gares, otros dos a Larraintzar, tres a Aoiz/Agoitz y uno a Aurizberri/Espinal. En cada salida, hubo jóvenes que participaron como responsables e hicieron posible el servicio.
Además, un centenar personas han participado en las encuestas sobre alcohol, tabaco/vapeo y cannabis realizadas dentro del programa. En ellas, se ha comprobado que parte de la juventud desconoce que el alcohol tiene un efecto depresor del sistema nervioso (aunque en dosis bajas se pueda percibir lo contrario) y que no deben compartir váper porque pueden contagiarse el herpes, la mononucleosis y catarros.

## BETAZALA Ongizate emozionala lantzeko programa

Urrian, Betazala programaren edizio berria jarriko da abian, **12-17 urteko gazteen** buruko osasuna zaintzeko eta ongizate emozionala sendotzeko, jolasaren, artearen eta naturaren bidez. Gazte parte-hartzaileek beren emozioak, balioak eta trebetasun pertsonalak arakatuko dituzte, ingurune seguruan beren burua hobeki ezagutzeko. Halaber, behar diren trebetasunak garatuko dituzte beren emozioak kudeatzeko, beren autoestimua hobetzeko eta pertsonen arteko harreman osasungarriak izateko. Naturarekiko loturak introspekzioa, gogoeta, oreka emozionala eta hazkuntza pertsonala sustatuko ditu.




Saioak hamabostean behin eginen dira, asteazkenetan, 17:30etik 19:30era, urritik ekainera. Ikastaroaren prezioa 30 euro da.

## BETAZALA Programa para el bienestar emocional

En octubre se pondrá en marcha una nueva edición del programa Betazala, que pretende cuidar la salud mental y fortalecer el bienestar emocional de **jóvenes de 12 a 17 años** a través del juego, el arte y la naturaleza. Los chicos y chicas participantes explorarán sus emociones, valores y habilidades personales en un entorno seguro para conocerse mejor. También desarrollarán habilidades para gestionar sus emociones, mejorar su autoestima y establecer relaciones interpersonales saludables. La conexión con la naturaleza facilitará la introspección, la reflexión, el equilibrio emocional y el crecimiento personal.
Serán sesiones quincenales los miércoles de 17:30 a 19:30, de octubre a junio, y el precio es de 30 euros por el curso completo.

**IZEN-EMATEA ETA ORDAINKETA / INSCRIPCIONES Y PAGOS**
irailaren 11tik 18ra, 948 012 012an (012 infolal, 8:00 - 18:00) edo www.villava.es / del 11 al 18 de septiembre, en el 948 012 012 (012 infocal, de 8:00 a 18:00) o en www.villava.es

662 031673
948 35 59 70

INFO +
juventud@villava.es
948355970 – 662031673

**GAZTELEKU ORDUTEGIA /HORARIO GAZTELEKU**
Astelehenetik ostegunera / De lunes a jueves 17:00-21:00
Ostiral eta larunbatetan / Viernes y sábados: 17:00-22:00
Igande eta jaiegunetan / Domingos y festivos: 17:00-20:00

# Udazkeneko jarduerak | Actividades de otoño

GAZTELEKU + INFO
948 35 59 70
juventud@villava.es







## GAZTE BIZI UDAZKENA

**12 eta 13 urte (2013-2014)**
**Taldeak erabakiko du zer jarduera egin (tailerrak, txangoak, jolasak, ateraldiak...)**

**Non, noiz eta ordutegia:** Gaztelekun, ostiraletan, 18:00etatik 20:00etara eta, larunbatetan, 18:30etik 20:30era
**Iraupena:** urriak 16, ostirala – abenduak 12, larunbata
**Prezioa:** erroldatuak, 45 €; ez erroldatuak, 90 €

## GAZTE BIZI PLUS UDAZKENA

**14 - 17 urte (2009-2012)**

**Noiz eta ordutegia:** ostiraletan, 19:00etatik 21:00etara
**Iraupena:** urriak 16, ostirala – abenduak 12, larunbata
**Prezioa:** erroldatuak, 35 €; ez erroldatuak: 70 €

## ANTZERKI TAILER GAZTEA

**Uharte, Burlata eta Atarrabiako 12 urtetik 17ra bitarteko gazteak (2014-2009). Taldeak gaztelaniaz eta euskaraz**

**Jarduera lekua:** gaztelaniaz, Atarrabian (Gazteleku), eta euskaraz, Uharten (Ugazte)
**Noiz eta ordutegia:** ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara
**Iraupena:** urriak 15 – apirilak 22 (apirilak 22, antzerki erakustaldia)
**Prezioa:** 85 €
**Emailea:** Taupadak Dance Studio

## 3 HERRI DANCE STUDIO Hip-hop, K-pop, Vogue...

**12 - 17 urte (2009 - 2014)**

**Jarduera lekua:** Atarrabia, Burlata eta Uharteko gazte lokalak
**Noiz eta ordutegia:** astelehenetan, 18:00etatik 19:00etara
**Iraupena:** urriak 19 – apirilak 26 (apirilak 29, erakustaldia)
**Prezioa:** 65 €

## BOXEO HEZIGARRIA

**12 - 17 urte (2009 - 2014)**

**Jarduera lekua:** Gazteleku
**Noiz eta ordutegia:** astearteetan, 18:30etik 19:30era
**Iraupena:** urriak 13 – abenduak 27
**Prezioa:** 55 €
**Emailea:** Iparbox

**IZEN-EMATEA ETA ORDAINKETA**
irailaren 11tik 18ra
948 012 012an
(012 infolal, 8:00 - 18:00)
edo www.villava.es

## ATE ZABALEKO EGUNA

**2014ko seme-alabak dituzten familientzat. Gazteria Zerbitzuko jarduerak, instalazioak eta zerbitzuak erakutsiko dira**

Familientzat, irailak 24, Gaztelekun
1. saioa: 18:00, gaztelaniaz
2. saioa: 19:30, euskaraz




**INSCRIPCIONES Y PAGOS**
del 11 al 18 de septiembre
En el 948 012 012
(012 infocal, de 8:00 a 18:00)
o en www.villava.es

## GAZTE BIZI UDAZKENA

**12 y 13 años (2013-2014)**
**El grupo decidirá las actividades que se vayan a realizar (talleres, excursiones, juegos, escapadas...)**

**Lugar, días y horario:** en el Gazteleku, los viernes de 18:00 a 20:00 y los sábados de 18:30 a 20:30
**Duración:** viernes 16 de octubre - sábado 12 de diciembre
**Precio:** personas empadronadas, 45 €; no empadronadas: 90 €

## GAZTE BIZI PLUS UDAZKENA

**De 14 a 17 años (2009-2012)**

**Día y horario:** viernes de19:00 a 21:00
**Duración:** viernes 16 de octubre - sábado 12 de diciembre
**Precio:** personas empadronadas, 35 €; no empadronadas: 70 €

## TALLER DE TEATRO JUVENIL

**De 12 a 17 años (2014-2009) de Huarte, Villava y Burlada. Grupos en castellano y euskera**

**Lugar de la actividad:** castellano en Villava (Gazteleku) y euskera en Huarte (Ugazte)
**Día y horario:** jueves de 17:00-19:00
**Duración:** 15 de octubre - 22 de abril (29 de abril, muestra de teatro
**Precio:** 85 €

## 3 HERRI DANCE STUDIO Hip-hop, K-pop, Vogue...

**De 12 a 17 años (2009 - 2014)**

**Lugar de la actividad:** Locales juveniles de Villava, Burlada y Huarte
**Día y horario:** lunes, de 18:00 a 19:00
**Duración:** 19 de octubre - 26 de abril (29 de abril, exhibición)
**Precio:** 65 €
**Imparte:** Taupadak Dance Studio

## BOXEO EDUCATIVO

**De 12 a 17 años (2009 a 2014)**

**Lugar de la actividad:** Gazteleku
**Día y horario:** martes, de 18:30 a 19:30
**Duración:** 13 de octubre - 27 de diciembre
**Precio:** 55 €
**Imparte:** Iparbox

## JORNADA DE PUERTAS ABIERTAS

**Para familias con hijos/hijas de 2014. Se mostrarán las actividades, instalaciones y servicios del Área de Juventud**

Para familias 24 de septiembre en Gazteleku
1ª sesión: 18:00, castellano
2ª: sesión: 19:30 euskera

# GAZTERIA | JUVENTUD




**Uda honetan gazteak gaitzeko HAZIera programan parte hartu duten gazteek Atarrabiari eta bertako historiari buruzko horma-irudi bat landu dute. Gaiak ikusmin handia eragin duenez, jende jario etengabea joan da huraxe ikustera karrika Nagusiko pasabide berrira. Horma-irudia margotzeaz gain, haur parke bat eta mantentze lanak egin dituzte.**

**El grupo de jóvenes que ha participado este verano en el programa de activación juvenil HAZIera ha trabajado en un mural sobre Villava y su historia. La temática ha generado tanta expectación que el goteo de vecinos y vecinas por el nuevo pasadizo de la calle Mayor ha sido constante. Además de pintar el mural, han realizado un parque infantil y diversas labores de mantenimiento.**



## Historiaz eta bizipozez beteriko zertzeladak

## Pinceladas de historia e ilusión

Aurten, HAZIera programan aritu direnek beroari egin behar izan diote aurre. Hori dela eta, gehienek horma-irudia eguzki galdatik urrun margotzea aukeratu dute. Horretan aritu dira, adibidez, **Alejandro Olaiz** eta **Izan Fernández**, nahiago izan baitute itzalean lan egitea eta marrazkirako beren dohainak lantzea: "ez dugu berorik izan eta oso ongi etorri zaigu hobetzeko".

**Beñat Otel**entzat, pintzela erabiltzea ez da zaila izan, batxilergo artistikoa ikasten ari delako. "Gehien kostatu izan zaidana izan da kolore-nahasketa egitea, baina arituz lortu egin dut".

**Bea Millán** aritu da buru margoketa taldeetan. "Aurten, oso proaktiboak ibili dira eta ikasteko gogoz. Niretzat, oso esperientzia aberasgarria da. Ohitua nago tailerrak ematera, baina laburragoak dira. Hemen, bi astez nago haiekin eta asko ikasten dut. Aurten, adibidez, diseinu monokromatikoa planteatu dut, kolore asko ez erabiltzeko eta tonuen nahasketa errazagoa izateko".

Abenturan hasi zenean, **Asier Esparza**k uste zuen lorezaintza lanetan arituko zela gustura, baina primeran pasatu du margotzen. "Ez nekien deus ere eta super azkar ikasi dut". Muralistaren aholku teknikoak ere luxu hutsa izan dira **Oihan San Martin**entzat. "Bearen azalpenak oso ongi etorri zaizkit; batez ere, eskuak margotzeko, oso zailak egiten baitzitzaizkidan. Gauza berriak ikastea dut gustuko eta zoragarri pasatu dut".

### Oso bizipen onuragarria

**Lucía Celihueta** taldeko txikiena izan da, esperientzia aunitz gustatu zaio eta guztiz gomendatzen du. Adiskide berriak egin ditu eta marrazkiari berreldu dio. Hori bai, "neketsua da pixka bat oporretan berriz ere goiz jaikitzea". **Naia Legarra** oso gustura aritu da eta esperientzia baliagarria izan zaio taldean lan egiten ikasteko. "Beti nire kasa lan egiten dut hobeki, baina hemen oso ongi moldatu naiz". Izan Fernándezek, bestalde, uste du erosoa dela. "Guay da, ez zaizu inola ere astuna egiten, bost lanordu direlako goizean".



**Enara Pardo**rentzat, programa oso-osoa da. "Parada ematen dizu lan munduan barneratzeko, jendea ezagutzeko eta taldean lan egiteko". **Asier Aceituno**k nabarmendu duenez, "denetarik pixka bat ikasten duzu, eta ez badakizu egiten, lagundu egiten dizute".

Mantentze lanak ere egin dituzte, hala nola haur parke bat moldatu, jarlekuak lixatu eta bernizatu, eta tarteka, landare bizikorrak ere landatu dituzte. **Oihan Antoñanzas**ek ez zuen inoiz lorezaintza lanik egin eta oso entretenigarria gertatu zaio.

**Iban Iturria**, Zerbitzu Anitzetako ofiziala, pozik agertu da lan taldeekin. "Jaramon egin didate eta oso arduratsuak izan dira. Ziur aski, adinak eragina izan du, aurreko urteetakoak baino urtebete edo bi urte handiagoak zirelako. Halaber, elkarrizketetan, kontuan hartu da egin beharreko lanerako izangaien ezagutza maila".

Oraindik ez dakite marrazkia edota lorezaintza ogibide izanen ote duten, baina harro esan dezakete beren herria hobetzen lagundu dutela.

Este año los y las participantes del programa HAZIera han tenido que lidiar con el calor. Por eso, pintar un mural lejos de los rayos del sol ha sido la opción preferida de la mayoría. Es el caso de **Alejandro Olaiz** y de **Izan Fernández**, que ha preferido trabajar en la sombra y retomar sus dotes de dibujo. “No hemos pasado calor y nos ha venido muy bien para mejorar”.

Para **Beñat Otel** manejar el pincel no ha sido difícil porque estudia Bachiller artístico. “Lo que más me ha costado ha sido hacer la mezcla de colores, pero con la práctica lo he conseguido”.

Al frente de los grupos de pintura ha estado la muralista **Bea Millán**. “Este año han estado muy proactivos y con ganas de aprender. Para mí es una experiencia muy enriquecedora. Estoy acostumbrada a impartir talleres, pero son más cortos. Aquí estoy dos semanas con ellos y aprendo mucho. Este año, por ejemplo, he planteado un diseño monocromático para evitar que hubiera muchos colores y resultara difícil la mezcla de tonos”.

Cuanto empezó esta aventura, **Asier Esparza** pensaba que iba a estar más a gusto en las labores de jardinería, pero se lo ha pasado muy bien pintando. “No tenía ni idea y he aprendido súper rápido”. Los consejos técnicos de la muralista también han sido un lujo para **Oihan San Martín**. “Las explicaciones de Bea me han venido muy bien, sobre todo para pintar las manos, que me resultaban muy difíciles. Me gusta aprender cosas nuevas y me lo he pasado genial”.





**Una vivencia muy positiva**

A **Lucía Celihueta**, la benjamina del grupo, la experiencia le ha gustado mucho y la recomienda totalmente. Ha hecho nuevos amigos y ha retomado el dibujo. Eso, sí, “volver a madrugar en vacaciones cuesta un poco”. **Naia Legarra** ha estado muy a gusto y la experiencia le ha servido para aprender a trabajar en grupo. “Siempre trabajo mejor sola, pero aquí me ha ido muy bien”. **Izan Fernández**, por su parte, cree que es muy cómodo. “Es guay, no se te hace nada pesado porque son cinco horas de trabajo por la mañana”.

Para **Enara Pardo** el programa es muy completo. “Te da la oportunidad de adentrarte en el mundo laboral, conocer gente y trabajar en equipo”. **Asier Aceituno** destaca que “aprendes un poco de todo y te apoyan y ayudan si no sabes hacerlo”.

Las labores de mantenimiento han consistido en la construcción de un parque infantil, lijado y barnizado de bancos, y en alguna que otra plantación de vivaces. **Oihan Antoñanzas** no había hecho nada de jardinería y le ha resultado muy entretenido.

**Iban Iturria**, oficial de Servicios Múltiples, se muestra satisfecho con los grupos de trabajo. “Me han hecho caso y han sido muy responsables. Seguramente la edad ha influido, porque eran uno o dos años mayores que los de ediciones anteriores. También se ha tenido en cuenta en las entrevistas el grado de conocimiento de los y las aspirantes del trabajo que se iba a realizar”.

Aunque desconocen si harán del dibujo o la jardinería su oficio, ya pueden presumir de haber contribuido a mejorar su pueblo.







# Jende aunitz udako jardueretan

Gazteen artean, harrera on-ona izan dute Uda Bizi eta Gazte Bizi Plus Uda programek, bai eta Uharterekin eta Burlatarekin batera antolatutako jarduerek ere (Port Aventurako ateraldia; Etxarriko kanpaldia, eklipsea zela eta).

# Numerosa participación en las actividades de verano

Tanto los programas Uda Bizi y Gazte Bizi Plus Uda como las actividades organizadas de forma mancomunada con Huarte y Burlada (salida a Porta Aventura y acampada en Etxarri con motivo del eclipse) han tenido una gran acogida por parte de la juventud.



# Atarrabia Sasoiko Villava en Forma

## Tokiko Osasun Plana

## Plan Local de Salud

Gobierno de Navarra | Nafarroako Gobernua

NAVARRA
Región europea del deporte 2027
Un territorio que inspira, un deporte que transforma

NAFARROA
Kirolaren eskualde europarra 2027
Lurraldea inspirazio iturri, kirola eraldaketa bide

**Atarrabia sasoiko – Villava en forma** izeneko ekimena Bizitza Osasuntsu eta Osasungarria Garatu eta Sustatzeko Toki Plana da. Horretarako, hainbat programa antolatzen dira herritarrek jarduera fisikoa egin dezaten. Udala da sustatzailea, hainbat erakundek osaturiko Toki Sarearen bidez eta Atarrabiako Osasun Etxearekin eta ADACEN elkartearekin egindako lankidetza-hitzarmenen bitartez.

**Jende guztiarentzat**
Plana herritar guztiei dago zuzendua, oro har; hau da, haur, gazte, heldu eta adinekoei. Gainera, barne hartzen ditu bai pertsona osasuntsuak, bai gaixotzeko arriskua dutenak. Azken horiei sendagileek eta erizainek esaten diete zer jarduera fisiko egin.
Planak hiru jarduketa esparru aurreikusi ditu, eta bakoitzak bere programa du:

1. Desberdintasun sozioekonomikoak eta genero arlokoak bereziki artatzeko programa.
2. Jende guztiarendako jarduera programa.
3. Jarduera programa, arriskuan dagoen jendearendako, gaixoendako eta/edo desgaitasuna dutenendako.

Programa bakoitzak ekintza eta jarduera egokiak ditu bere helburuetarako, baina xedea berdina da hiruetan: jarduera fisikoa sustatzea Atarrabiako bizilagunen osasuna hobetzeko.

**Atarrabia sasoiko – Villava en forma** es un Plan Local para el Desarrollo y Promoción de la Vida Sana y Saludable mediante la incorporación de programas orientados a la práctica de actividad física entre la población. Lo promueve el Ayuntamiento a través de una Red Local compuesta por distintas entidades y de dos Convenios de colaboración: con el Centro de Salud de Villava y con la asociación ADACEN.

**Dirigido a toda la población**
El plan está dirigido a la población en general, desde la infancia hasta la senectud. Además, incluye tanto a las personas sanas como a las personas en riesgo de enfermar. A estas últimas, son el personal médico-sanitario quien les prescribe la práctica de la actividad física.
El Plan contempla 3 ámbitos de actuación que dan lugar a 3 programas distintos:

1. Programa de atención especial a desigualdades socioeconómicas y de género.
2. Programa de actividades para la población general.
3. Programa de actividades para población de riesgo, enferma y/o con discapacidad.

Cada programa se concreta en acciones y actividades adecuadas a sus objetivos, pero siempre con un propósito común: fomentar la actividad física para mejorar la salud de los vecinos y vecinas de Villava.

## UKE Egutegia 2026-2027 ikasturtea | Calendario EDM Curso 2026-27

IRAILA / SEPTIEMBRE 2026

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | | | | |

URRIA / OCTUBRE

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

AZAROA / NOVIEMBRE

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | | | | | | |

ABENDUA / DICIEMBRE

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

URTARRILA / ENERO 2027

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

OTSAILA / FEBRERO

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |

MARTXOA / MARZO

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | 31 | | | | |

APIRILA / ABRIL

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | | |

MAIATZA / MAYO

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
| 31 | | | | | | |

EKAINA / JUNIO

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | | | | |

KIROL ESKOLEN HASIERA-BUKAERA INICIO-FINAL ESCUELAS DEPORTIVAS

JARDUERARIK GABEKO EGUNAK / DÍAS SIN CLASE

**INFO +**
deportes@villava.es / 948124999

## Kirol Eskoletako denboraldia, abian

4 – 16 urte arteko haurrendako Kirol Eskola guztiak irailaren 14an hasi dira, maiatzaren 28an bukatzeko.
Maiatzeko izen-emate epealdiaren ondorioz, ia talde guztiak beteak daude, baina oraindik ere bada tokirik judo, multikirol eta psikomotrizitate eskoletan.
Honatx gainerako kirol eskolak: eskalada, futbola, gimnasia artistikoa, pilota, erremontea, txirrindularitza, triatloia, igeriketa eta eskubaloia.

## Arranca el curso de las Escuelas Deportivas

Las diferentes Escuelas Deportivas para niños y niñas de 4 a 16 años comienzan su actividad el 14 de septiembre. La fecha final lectiva es el 28 de mayo.
Tras el periodo de inscripciones de mayo, casi todos los grupos están al completo, pero aún quedan plazas libres en las escuelas de judo, de multideporte y de psicomotricidad.
El resto de disciplinas son: escalada, fútbol, gimnasia artística, pelota, remonte, ciclismo, triatlón, natación, y balonmano.

## Toki libreak, +60 igeriketa eskaintzan

Oraindik ere bada tokirik diruz lagundutako igeriketa eskaintzan, Udaleko Kirol Zerbitzuak 60 urtetik gorakoendako Jarduera Fisikoko Programaren barnean antolatua. Badira tokiak bai hastapen taldean, bai hobekuntzakoan. Ikasturtea irailaren 14an hasi eta ekainaren 11n bukatuko da, eta Martiketen egiten da. Prezioak 66,20 €-tik 141,40 €-ra bitartekoak dira (Sara indizea aplikatuta). Hastapen maila astelehen eta asteazkenetan ematen da, 16:00etatik 16:45era; eta hobekuntza, astearte eta ostegunetan, 16:00etatik 16:45era.
Argibideak eta izen-ematea: 948 12 49 99

## Plazas libres en la oferta de natación +60

Aún hay plazas libres en la oferta de natación subvencionada que organiza el Servicio Municipal de Deportes dentro del Programa de Actividad Física para mayores de 60 años. Hay vacantes tanto en el grupo de iniciación como en el de perfeccionamiento. El curso comienza el 14 de septiembre y termina el 11 de junio y se desarrolla en la piscina cubierta de Martiket. Los precios van desde 66,20 € a 141,40 € (aplicando el índice Sara). Iniciación se imparte los lunes y miércoles de 16:00 a 16:45; y perfeccionamiento, los martes y jueves de 16:00-16:45.
Más información e inscripciones: 948 12 49 99



# Adacenekiko hitzarmena berritu da

# Renovación del convenio con Adacen

Mikel Oteiza Atarrabiako alkateak eta Jose Luis Herrera Garuneko Kaltearen Elkarteko (ADACEN) presidenteak Osasun Aktiboa Etxean Programaren hitzarmena berritu zuten joan den irailaren 4an 2026-27 ikasturterako, sinadura ekitaldiaren bidez. Programaren bitartez, jarduera fisikoa lantzeko saioak antolatzen dira mugitzeko zailtasuna duten mendekoentzat eta zaintzaileei aholkularitza ematen zaie. Jarduerak, urtero, herriko 12 pertsona mendeko eta haien zaintzaileak artatzen ditu. Era berean, aurreko urteetako pazienteen jarraipen aktiboa egiten du.

Mikel Oteiza, alcalde de Villava, y Jose Luis Herrera, presidente de la Asociación de Daño Cerebral (ADACEN) firmaron el pasado 4 de septiembre la renovación del Convenio del Programa de Salud Activa en Domicilio para el curso 2026-27, que facilita sesiones de actividad física en el hogar a personas dependientes con dificultad para desplazarse y asesoramiento a las personas cuidadoras. Esta actividad atiende cada año a 12 nuevas vecinas y vecinos dependientes y a sus personas cuidadoras. Asimismo, realiza un seguimiento activo de pacientes de años anteriores.



| | ASTELEHENA LUNES | ASTEARTEA MARTES | ASTEAZKENA MIÉRCOLES | OSTEGUNA JUEVES | OSTIRALA VIERNES | LARUNBATA SÁBADO |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 10:00 | | | | | | Padel 2011-16 |
| 11:00 | Padel +16 | Padel +16 | Padel +16 | Padel +16 | | Pádel +16 |
| 12:00 | | | | | | |
| 16:00 | | | | | | |
| 17:00 | Padel 2011-16 | Padel 2011-16 | Padel 2011-16 | Padel 2011-16 | Padel 2011-16 | |
| 18:00 | Padel +16 | Padel +16 | Padel +16 | Padel +16 | | |
| 19:00 | Padel +16 | Padel +16 | Padel +16 | Padel +16 | | |

# Padel ikastaroak: haurrak eta +16 urte

Kirol Zerbitzuak eta Kirol Martiket 2015 SLk haurrendako padel ikastaroak antolatu dituzte denboraldi berri honetarako (2022 eta 2016 artean jaiotakoak), astean ordubetekoak, eta ikastaroak ere 16 urtetik gorakoendako, astean bitan, edo saio bat larunbatetan. Ikastaroak Martiketeko padel pista estreinatu berrietan eginen dira.

# Cursos de pádel infantil y +16 años

El Servicio de Deportes y Kirol Martiket 2015 S.L. han organizado para esta nueva temporada cursos de pádel infantil (nacidos/as entre 2022 y 2016) de una hora a la semana y cursos para mayores de 16 años dos días a la semana o una sesión los sábados. La formación se desarrollará en las recién estrenadas pistas de pádel de Martiket.

## HASTAPENA 10 - 15 URTE

- Urte osoko prestakuntzarako izen-ematea (ikastaro osoa), gehienez 6 laguneko taldeetan, astean behin. Eskolak irailaren 14an hasi eta maiatzaren 29an bukatuko dira.
- TARIFAK:
  - Abonatu erroldatuak: 140 €
  - Erroldatu gabeko abonatuak: 180 €
  - Ez abonatuak, ez erroldatuak: 270 €

## INICIACIÓN 10 – 15 años

- Formación de inscripción anual (curso completo) en grupos de máximo 6 personas un día por semana. Las clases comienzan el 14 de septiembre y finalizan el 29 de mayo.
- TARIFAS:
  - Abonados/as empadronados/as: 140 €
  - Abonados/as no empadronados/as: 180 €
  - No abonados/as no empadronados/as: 270 €

## +16 URTE

- Lauhileko inskripzioa. Ordubeteko bi saio astean (astelehen eta asteazkenetan edo astearte eta ostegunetan) edo saio bakarra larunbatetan.
- TARIFAK:
  - 2 saio, abonatuak: 240,00 €
  - 2 saio, abonatu gabeko erroldatuak: 275,00 €
  - 2 saio, ez abonatuak ez erroldatuak: 360,00 €
  - larunbatetan, abonatuak: 120,00 €
  - larunbatetan, abonatu gabeko erroldatuak: 137,50 €
  - larunbatetan, ez abonatuak ez erroldatuak: 180,00 €

## + 16 AÑOS

- Inscripción cuatrimestral. Dos sesiones semanales de una hora (lunes y miércoles o martes y jueves) o una única sesión los sábados.
- TARIFAS:
  - 2 sesiones personas abonadas: 240,00 €
  - 2 sesiones personas no abonadas empadronadas: 275,00 €
  - 2 sesiones personas no abonadas no empadronadas: 360,00 €
  - sábados personas abonadas: 120,00 €
  - sábados personas no abonadas empadronadas: 137,50 €
  - sábados personas no abonadas no empadronadas: 180,00 €

## Haurrendako multikirola udan

## Multideporte infantil en el verano

Arrakasta handia izan du Martiketek udan eskainitako multikirol programak. Batetik, 6 urtetik 8ra bitarteko haurrentzat, eta bestetik, 9tik 14 urtera bitartekoentzat. 3 aste izan dira (ekainak 22-26, ekainaren 29tik uztailaren 3ra eta abuztuaren 31tik irailaren 4ra), 9:00etatik 13:00etara, hainbat jarduera lantzeko: igeriketa eta salbamendua, pilota, judoa, ping-pong, herri-kirolak, eskalada eta askoz aisialdi jarduera gehiago. Aste bakoitzeko kostua 60 € izan da erroldatuentzat; 65 €, abonatu gabeko erroldatuentzat; eta 75 €, ez abonatu ez erroldatuendako. Guztira, 83 izen-emate izan dira.

Ha sido todo un éxito de participación el programa de multideporte ofertado por Martiket este pasado verano para niños y niñas de 6 a 8 años, por un lado, y de 9 a 14 por otro. Fueron 3 semanas (22-26 de junio, 29 de junio-3 de julio y 31 de agosto-4 de septiembre) en las que pudieron practicar de 9:00 a 13:00 natación y salvamento, frontón, judo, ping-pong, herri-kirolak, escalada y muchas más actividades de ocio. El coste de cada semana fue de 60 € en el caso de empadronados/as; 65 € en el de empadronados/as no abonados/as; y 75 para no abonados/as no empadronados/as. Hubo un total de 83 inscripciones.






## MARTIKET 2026-27ko eskaintza

**MARTIKET ABONUKO JARDUERAK. HASIERA, IRAILAK 7. AMAIERA, EKAINAK 25.** Abonu honen bidez badago sarbidea igerilekuetan, muskulazio gelan, padelean, tenisean eta squashean, eta, horrez gain, jarduera sorta ederra dago urte osoan eskura, uztailean eta abuztuan izan ezik: pilates, hipopresiboak, interval tono, entrenamendu funtzionala, power pump, hit, aquagym, gorputz jarrera berreztea, indoor zikloa, batxata, yoga flow, step, zumba eta core.

**CROSS TRINNING / HYBRID. HASIERA, IRAILAK 7. AMAIERA, EKAINAK 25.** Ikasturteak ekarriko duen berritasun nagusia crosstraining instalazio berrien inaugurazioa izanen da. Jarduera horrek bere eskaintza izanen du.

**LAUHILEKO JARDUERAK. IRAILAK 4. - URTARRILAK 30 ETA OTSAILAK 1-MAIATZAK 29.** Igeriketa, helduak, haurrak eta umetxoak; yoga +16 urte; zumba juniorra, eskalada +16 urte, prestaketa fisikoa oposizioetarako, eta padela (ikus 23. or.).

**ACTIVIDADES DE ABONO MARTIKET. COMIENZO, 7 DE SEPTIEMBRE, FINALIZACIÓN 25 DE JUNIO.** Con este abono se puede acceder a las piscinas, a la sala de musculación, al pádel, el tenis y el squash, y disfrutar de una completa parrilla de actividades durante todo el año, salvo julio y agosto: pilates, hipopresivos, interval tono, entrenamiento funcional, power pump, hit, aquagym, reodenación postural, ciclo indoor, running club, bachata, yoga flow, step, zumba y core.

**CROSS TRINNING / HYBRID. COMIENZO, 7 DE SEPTIEMBRE, FINALIZACIÓN 25 DE JUNIO.** La gran novedad de este curso es la oferta independiente de estas disciplinas en las nuevas instalaciones recién inauguradas.

**ACTIVIDADES CUATRIMESTRALES. 4 DE SEPTIEMBRE-30 DE ENERO y 1 DE FEBRERO-29 DE MAYO.** Natación personas adultas, infantil y bebés; yoga +16 años; zumba júnior, escalada +16 años, preparación física para oposiciones y pádel (ver pag 23).



### Igerilekuko jaia ekainaren 27an ospatu zen

### La fiesta de la piscina se celebró el 27 de junio









# Presta zaitez negurako

## Urriaren 13an hasiko da gripeari eta Covidi aurre egiteko txertaketa kanpaina



### NOLA ESKATU HITZORDUA

- Ahal dela, Osasun Karpeta Pertsonalaren bidez
- Osasun Etxeko aurretiazko hitzorduaren telefonora deituz (10:00 - 15:00)

### NORK JARRI BEHAR DU TXERTOA

- 60 urtetik gorakoek
- 5 urtetik gorakoek, baldin eta desgaitasun zentroetan, adinekoen egoitzetan eta instituzio itxietan bizi badira.
- 5 - 59 urte arteko jendeak, baldin eta honelako arrisku-baldintzak baditu: mellitus diabetea eta Cushing sindromea, obesitate morbidoa, gaixotasun kroniko kardiobaskularrak, neurologikoak, arnas arlokoak, giltzurrinekoak, koagulazio arazoak, immunosupresioa edo minbizia, eta disfuntzio kognitiboa dakarten eritasunak (Down sindromea, dementziak...), beste arrisku-patologia batzuen artean.
- Emakume haurdunek, haurdunaldiko edozein hiruhilekotan, eta erditu eta sei hilabete pasa arte (haurdunaldian txertatu ez badira).
- Immunosupresio maila handiko pertsonekin bizi direnek.
- Osasun eta gizarte-osasuneko etxe eta establezimenduetako langileek.
- Oinarrizko edo funtsezko zerbitzu publikoetako langileek (segurtasun indarrak eta kidegoak, suhiltzaileak eta babes zibileko zerbitzuak).

### GOMENDAGARRIA ERE...

- 6-59 hilabete arteko haurrentzat
- erretzaileentzat
- gaixotasun zeliakoa dutenentzat
- likido zefalorrakideoko fistula eta inplante koklearra dutenentzat edo haren zain daudenentzat
- azido azetilsalizilikoan oinarritutako tratamendua jasotzen duten 5-15 urte arteko pazienteentzat.
- osasun eta gizarte-osasuneko zentroetan praktiketan ari diren ikasleentzat
- haur hezkuntzako ikastetxeetako langileentzat
- nekazaritza-ustiategietan abereen edo haien sekrezioen eraginpean lan egiten dutenentzat.

### 6 HILABETE – 11 URTEKO HAURRAK

6 hilabete eta 11 urte arteko haurren artean, covidaren kontrako txertoa lehenetsiko da covid larriarekiko arriskurik handiena duten pertsonen artean, bai eta haien bizikideen artean, hala nola guraso hematopoietikoengandik transplante bat izan dutenak, immunoeskasia primario eta eskuratutako batzuk, barne dela minbizia eta terapia immunosupresoreak jasotzen dituztenak, gaixotasun kroniko kardiobaskular larriak, arnas gaixotasun kroniko larriak eta gaixotasun neurologiko edo neuromuskular larriak.

### ALDI BEREKO TXERTAKETA

Gripearen eta Covid-19aren kontrako txertoa jartzea agindu zaien pertsonek biak batera jasoko dituzte. Covid-19aren kontrako txertoa jartzen ahalko da, baldin eta hiru hilabete igaro badira azken aldiz jarri zenetik edo azken infekziotik.

## Eskatu hitzordua zure osasun karpetaren bidez

## Solicita cita desde tu carpeta personal de salud



**OSASUN ETXE BERRIA**
**Txertoetarako, alboko atetik sartu behar da, Karrobide eta Ezkaba kaleen artean. Ate hori txertaketa kanpainan bakarrik egonen da zabalik.**

**NUEVO CENTRO DE SALUD**
**Para las vacunaciones, acceso por la puerta lateral, situada entre las calles Karrobide y Ezcaba. Esta puerta permanecerá abierta únicamente durante la campaña de vacunación.**

# Prépárate para el invierno

## El 13 de octubre arranca la campaña de vacunación frente a la gripe y la Covid

### CÓMO SOLICITAR UNA CITA

- de manera preferente, a través de la Carpeta Personal de Salud
- llamando al teléfono de cita previa del Centro de Salud (948 33 50 75, de 10:00 a 15:00.

### QUIÉN DEBE VACUNARSE

- Personas a partir de 60 años
- Personas desde 5 años internas en centros de discapacidad, residencias de mayores y residentes en instituciones cerradas.
- Personas entre 5 y 59 años con condiciones de riesgo como: diabetes mellitus y síndrome de Cushing, obesidad mórbida, enfermedades crónicas cardiovasculares, neurológicas, respiratorias, renales, trastornos de la coagulación, inmunosupresión o cáncer y enfermedades que conllevan disfunción cognitiva (síndrome de Down, demencias...), entre otras patologías de riesgo.
- Mujeres embarazadas en cualquier trimestre de gestación y hasta los 6 meses tras el parto (si no se vacunaron durante el embarazo).
- Personas convivientes con aquellas que tienen alto grado de inmunosupresión.
- Personal de centros y establecimientos sanitarios y socio-sanitarios.
- Personal de servicios públicos básicos o esenciales (fuerzas y cuerpos de seguridad, bomberos y servicios de protección civil.

### TAMBIÉN RECOMENDADA PARA...

- población infantil entre 6 y 59 meses de edad
- personas fumadoras
- con enfermedad celíaca
- con fístula de líquido cefalorraquídeo e implante coclear o en espera del mismo
- pacientes de 5 a 18 años que reciben tratamiento prolongado con ácido acetilsalicílico
- estudiantes en prácticas en centros sanitarios y sociosanitarios
- personal de centros de educación infantil
- personal con exposición a animales o a sus secreciones en explotaciones agrarias.

### POBLACIÓN 6 MESES - 11 AÑOS

En la población infantil entre 6 meses y 11 años, se priorizará la vacunación frente a la covid a las personas que presentan mayor riesgo de covid grave y sus convivientes, como pueden ser aquellas que han tenido un trasplante de progenitores hematopoyéticos, algunas inmunodeficiencias primarias y adquiridas, incluyendo cáncer y aquellas que reciban terapias inmunosupresoras, enfermedades crónicas cardiovasculares graves, enfermedades crónicas respiratorias graves y enfermedades neurológicas o neuromusculares graves.

### VACUNACIÓN SIMULTÁNEA

Las personas que tengan indicación de vacunación frente a la gripe y frente a la COVID-19 recibirán las dos vacunas simultáneamente. La vacuna frente a la COVID-19 podrá inocularse siempre y cuando hayan transcurridos más de 3 meses desde la última administración o desde la última infección.

# BERDINTASUNA | IGUALDAD

## Atarrabiak udal kirolaren egoera aztertuko du generoaren ikuspegitik

**Behin diagnostikoa ezagututakoan, udal kirolaren arloko emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunerako Ekintza Plana (2027-2033) landuko da desberdinkeriak zuzentzeko asmoz.**

Helburua da generoaren ikuspegia kirol kudeaketan sistematikoki txertatzea, Udalak dagoeneko eskura dituen baliabideak eraginkortasunez erabiliz. Kirola egitea ona baita emakume bakoitzaren eta, oro har, emakumeen, ahalduntzea sustatzeko, autoestimua, autozaintza eta autonomia hobetzen dituelako, genero estereotipoei aurre egiten dielako, laguntza sareak sortzen dituelako eta gorputz eta buruko osasunari on egiten dielako.
Udalaren egitasmoak Nafarroako Gobernuko Nafarroako Berdintasunaren Institutuaren dirulaguntza jaso du, eta 2027-2033 aldirako izanen da. Udaleko Berdintasun eta Kirol zerbitzuak arduratuko dira hura garatzeaz, bai eta Martiket Sozietate Publikoa ere.

**Egungo egoera**
2025eko udal kirolari buruzko memoriak jasoa duenez, abiapuntua itxuraz ona da: izan ere, 2025ean igerilekuetan bazkidetutako 4.490 pertsonatatik, % 53,50 emakumezkoak ziren; eta jarduera fisiko eta kirolezkoetan izena emaniko 2.411 pertsonatatik, % 52,84 emakumezkoak ziren. Badira, ordea, lehen ondorio hori zalantzan jartzen duten bestelako egoerak; adibidez, kirol batzuetan oso emakume gutxi aritzen dira edo bat bera ere ez.
Lehen ekintzetako bat izanen da egungo datuak alderatzea 2020an egindako diagnostikoarekin bilakaera aztertzeko.

**Aztertuko diren inguruabarrak**
Azterlanak egiazki jaso dezan zertan den emakumeen kirol partaidetza, bestelako gauzak batu behar zaizkie irizpide zenbagarriei, hala nola baliabideen sarbidea eta kontrola, denbora eskuragarritasuna, zaintzetako erantzunkidetasuna bizitza familiarrean, norberaren bizitza, familia eta lana bateragarria izateko aukera, osasun egoera, kirol arloko sexu jazarpena, kirola egiteko arriskutsuak izan daitezkeen lekuak, etab.

## Lan arloak

- Kirol Eskoletako hitzarmenak: Beti Onak Kirol Elkartea (eskubaloia, futbola eta pilota); Club Ciclista Villavés
- Dirulaguntzak klubei eta jarduerei.
- Babesletza kontratuak.
- Monitoreen prestakuntza.
- Kirol Instalazioen Zerbitzu Zorroa.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta arreta udal kirolaren esparruan.
- Osasuna jarduera fisikoaren bidez sustatzea; bereziki, helduaroan.

## Áreas de trabajo

- Convenios de Escuelas Deportivas: CD Beti Onak (balonmano, fútbol y pelota); Club Ciclista Villavés
- Subvenciones a clubs y actividades.
- Contratos de patrocinio.
- Formación de monitorado.
- Cartera de Servicios de las Instalaciones Deportivas.
- Prevención y atención de la violencia contra las mujeres en el ámbito deportivo municipal.
- Promoción de la salud a través de la actividad física, especialmente en edad adulta.

## Villava analizará la situación del deporte municipal desde la perspectiva de género

**Una vez se conozca el diagnóstico, se elaborará un Plan de Acción de Igualdad entre mujeres y hombres en el deporte municipal 2027-2033 con el objetivo de corregir las desigualdades.**

El objetivo es integrar sistemáticamente la perspectiva de género en la gestión deportiva, utilizando de forma eficiente los recursos propios con los que ya cuenta el Ayuntamiento. La práctica deportiva favorece el empoderamiento individual y colectivo de las mujeres, ya que mejora la autoestima, el autocuidado y la autonomía, desafía los estereotipos de género, genera redes de apoyo y beneficia la salud física y mental.
Este proyecto del Ayuntamiento cuenta con una subvención del Instituto Navarro para la Igualdad del Gobierno de Navarra, y abarca el periodo 2027-2033. Su desarrollo implica a los servicios municipales de Igualdad y Deportes y a la Sociedad Pública Martiket.

**Situación actual**
El punto de partida, según se recoge en la memoria deportiva municipal de 2025, es aparentemente positivo: de las 4.490 personas abonadas en 2025 a las piscinas, el 53,50 % eran mujeres; y de las 2.411 personas inscritas en actividades físico-deportivas, el 52,84 % eran mujeres. Pero hay otras realidades que cuestionan esta primera conclusión. por ejemplo, que hay deportes en los que la participación femenina es mínima o nula.
Una de las primeras acciones será comparar los datos actuales con los registrados en el diagnóstico realizado en 2020 para analizar la evolución.

**Circunstancias sujetas a estudio**
Para que el estudio se ajuste a la realidad de la participación de las mujeres en el deporte, hay que sumar a los criterios cuantificables aspectos como el acceso y control de los recursos, la disponibilidad de tiempo, la corresponsabilidad en los cuidados en la vida familiar, la conciliación de la vida personal, familiar y laboral, las especificidades en la motivación de ellas a la hora de practicar deporte, el estado de salud, la existencia de acoso sexual en el deporte y de espacios potencialmente peligrosos para la práctica deportiva, etc.

Arrasate
• Mayor, 15 bis
Tel. 663 924 068
• Las Eras, 7
Tel. 948 122 089
• Obrador
P. I. Landazabal A-10
Tel. 948 130 163
www.arrasate.es

Fiare
Banca ética
www.fiare.org
Banku etikoa

alfatarrabia
Mantenimientos y Eficiencia Energética
INSTALACION DE PLACAS SOLARES
PUNTOS DE RECARGA COCHE ELECTRICO
VIVIENDAS – COMUNIDADES – EMPRESAS
ESTUDIO PERSONALIZADO SIN COMPROMISO
TE AYUDAMOS A TRAMITAR LAS SUBVENCIONES
AYUDA AL PLANETA – PAGA MENOS
Travesía Karrobide 3, Bajo – Villava/Atarrabia
948593834 – 648471140 - LLAMANOS

# Abian!

# ¡En marcha!

## Entxufatu enplegura
## Enchúfate al empleo




Enplegu-aukerak baldintzatzen dituzten genero egiturak ezagutzeko prestakuntza da, nork bere buruarengan konfiantza handiagoa izateko eta norberaren gaitasunak ezagutzeko / Formación para conocer las estructuras de género que condicionan las oportunidades de empleo, para ganar confianza y reconocer las capacidades propias

**Dinamizatzailea / Dinamizadora:** Ana Beaumont **Prezioa / Precio:** 20 € erroldatuak eta 50 € ez-erroldatuak / 20 € personas empadronadas y 50 € no empadr..

**Iraupena / Duración:** bi orduko 14 saio urrian eta azaroan / 14 sesiones de dos horas entre octubre y diciembre




## Taichi – Chikung

**Emailea: / Imparte:** Olga Navarro Cía

**Prezioa / Precio:** 30 € erroldatuak eta 40 € ez-erroldatuak / 30 € personas empadronadas y 40 € no empadronadas

**Non / lugar:** Martiket

**Iraupena / Duración:** irailak 16 eta 23; urriak 14, 21 eta 28; azaroak 4, 11, 18 eta 25; eta abenduak 9 eta 16 / 16 y 23 de septiembre; 14, 21 y 28 de octubre; 4, 11, 18 y 25 de noviembre; y 9 y 16 de diciembre

**Ordua / Hora:** 10:00-11:30




## Irakurketa txokoa 1.0 club de lectura

**Liburuak / Títulos:** "La tribuna" (Emilia Pardo Bazán); "El lunes nos querrán" (Najat El Hachmi); "Auge" (Alicia Valdés); "Hierba" (Keum Suk Gendry-Kim);"El libro de la almohada" (Sei Shonagon); Ipuinak-Cuentos (Shirley Jackson); "Jenisjoplin" (Uxue Alberdi).

## Irakurketa txokoa 2.0 club de lectura

**Liburuak / Títulos:** "La mujer habitada" (Gioconda Belli); "Mujeres y poder" (Mary Beard); "Frankenstein" (Mary Shelley); "Material de construcción" "Eraikuntzarako materiala" (Eider Rodríguez); "Persépolis" (Marjane Satrapi); poesia aukeraketa / Selección de poesía; "Carol" (Patricia Highsmith); "Entre visillos" (Carmen Martín Gaite).

**Dinamizatzailea / Dinamizadora:** Nerea Aguado Alonso

**Prezioa / Precio:** 40 € erroldatuak eta 50 € ez-erroldatuak / 40 € personas empadronadas y 50 € no empadronadas

**Non / lugar:** Atarrabiako Kultur Etxea / Casa de Cultura de Villava

**Noiz:**

**1.0:** hileko hirugarren osteguna / tercer jueves de cada mes

**2.0:** hileko laugarren osteguna / cuarto jueves de cada mes

**Ordua / Hora:** 19:00-21:00

# Atarrabiak eguneratu du indarkeria matxistari festetan aurre egiteko protokoloa

# Villava actualiza su protocolo frente a la violencia machista en fiestas

Udan zehar, Atarrabian hainbat bilera egin dira festaguneetako eraso matxisten inguruko sentsibilizazioa, prebentzioa eta arretarako toki protokoloa eguneratzeko. Proiektuak Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren funtsen laguntza jaso du. Eragile aunitz daude inplikaturik festetako indarkeriaren prebentzioan, hots, Udala, jai batzordea, txosnak, aisia lokalak, elkarteak eta herritarrak, oro har. Beraz, garrantzitsua da guztien ekarpenak jasotzea protokoloa eguneratzeko orduan.

Zehazki, hiru alderdi landu dira: emakumeen aurkako indarkeria festaguneetan **atzeman** eta **artatzea**, bai eta **erreparazioa** ere, eta haren **prebentzioa** egitea; halaber, sentsibilizazioa egitea, gaitzea, eta berdintasuna zeharka lantzea jai giroko eta aisiako jardueretan.

Nola erantzun behar dugu emakumeok eta gizonok indarkeria mota horren aurrean? Protokoloak galdera horri erantzun eta eragileen eginkizuna zehaztu du, hau da, Udala (alkatetza, udaltzaingoa, berdintasun zerbitzua, eledunen batzordea), herritarrak (informatzeko eta sentsibilizatzeko beharra), txosnak (beren protokoloa dute), eta lokalak, aisialdirako guneak eta elkarteak.

Este verano, Villava ha abordado en varias reuniones la actualización del Protocolo Local para la sensibilización, prevención y atención de agresiones machistas en espacios festivos. Este proyecto cuenta con la ayuda de los fondos del Pacto de Estado contra la Violencia de Género. La prevención de la violencia en fiestas implica al Ayuntamiento, a la comisión de fiestas, a las txosnas, a los locales de ocio, a las asociaciones, y a la ciudadanía en su conjunto, de ahí la importancia deacoger las aportaciones de todas las partes en la actualización del protocolo.

Concretamente, se ha trabajado en tres aspectos: en la **detección, atención y reparación** de la violencia contra las mujeres en los espacios festivos y en su **prevención**: sensibilización, capacitación y transversalización de la igualdad en las actividades festivas y de ocio.

¿Cómo debemos responder mujeres y hombres ante este tipo de violencia? El protocolo da respuesta a esta pregunta concretando el papel del Ayuntamiento (Alcaldía, Policía Municipal, Igualdad, Junta de Portavoces), de la ciudadanía (necesidad de informar y sensibilizar), las txoznas (que además cuentan con protocolo propio), y de locales, espacios de ocio y sociedades.

## Sexu erasoak

Sexu askatasunaren aurkako edozein jokabide. Ez du zertan izanik indarkeria- edo larderia-ekintza nabarmena; izan daiteke partekatua ez den desio bat modu sotilago edo ezkutuago batean inposatzea.

- Ukituak
- Exhibizionismoa
- Nahi ez diren hurbilketak
- Presioa egitea beste pertsonak amore eman eta sexua izan dezan
- Bortxaketa

## Agresiones sexuales

Cualquier conducta contra la libertad sexual. No tiene por qué ser un acto de violencia o intimidación manifiesta, puede ser la imposición de un deseo no compartido de una manera más sutil u oculta.

- Tocamientos
- Exhibicionismo
- Acercamientos no deseados
- Presionar para que la otra personas acceda a tener sexo
- Violación

## Eraso matxistak

- Mespretxatzea
- Iraintzea
- Umiliatzea
- Alderdi fisikoa kritikatzea
- Nahi ez diren igurtziak
- Jazarpena
- Desio ez diren jokabideak, deserosotasuna eta beldurra eragiten dutenak

## Agresiones machistas

- Despreciar
- Insultar
- Humillar
- Criticar el aspecto físico
- Roces no deseados
- Acoso
- Conductas no deseadas que provocan incomodidad y miedo



# Atarrabiako Jaiotzagileen Elkarteko bi kide, sarituak

# Premiados dos miembros de la Asociación de Belenistas de Villava

**Richard García Palaciosek** eta **Charo Afra Elíak** Espainiako Jaiotzagileen Federazioaren Trofeoa jaso zuten joan den ekainean, arte eta kultur adierazpen horren alde luzaroan egindako lan eta sustapenaren esker onean. Sariak, zehazki, Logroñon (Errioxa) ekainaren 25etik 28ra egindako Jaiotzagileen LXIII Biltzar Nazionalaren itxiera ekitaldian banatu ziren.

**Jaiotzak egiteko ikastaroa**
Zortzi ikaslek parte hartu zuten joan den seihilekoan Atarrabiako San Andrés Jaiotzagileen Elkarteak emaniko jaiotzagintza ikastaroan. Parte-hartzaileek prestakuntza teorikoa eta praktikoa jaso zuten, oinarrizko hainbat arlo landuta, hala nola eszenen diseinua eta osaera, hainbat material motarekin lan egitea, eraikinen eraikuntza, paisaien sorkuntza, margoa, eta jaiotza osatzen duten piezen akabera artistikoa. Jaiotzagileen Elkartearen iritziz, horrelako ikastaroak ematea funtsezkoa da belaunaldien arteko txandaketa bermatzeko eta arte eta kultur tradizio horren jarraipena ziurtatzeko.

Asociación Belenistas San Andrés VILLAVA
Atarrabiako San Andres Jaiotzazaleen Elkartea

BELENISMO
PATRIMONIO CULTURAL INMATERIAL

**Richard García Palacios** y **Charo Afra Elía** fueron distinguidos en junio con el Trofeo de la Federación Española de Belenistas (Trofeo FEB) en reconocimiento a una trayectoria de dedicación, promoción y defensa de esta manifestación artística y cultural. La entrega de los galardones tuvo lugar durante el acto de clausura del LXIII Congreso Nacional Belenista, celebrado entre los días 25 y 28 de junio en Logroño (La Rioja).

**Curso de belenismo**
Ocho alumnos y alumnas participaron en un curso de belenismo impartido por la Asociación de Belenistas San Andrés de Villava el semestre pasado. Los y las participantes recibieron formación teórica y práctica, abordando aspectos fundamentales como el diseño y composición de escenas, el trabajo con distintos materiales, la construcción de edificaciones, la creación de paisajes, la pintura y el acabado artístico de las diferentes piezas que conforman un belén. Desde la Asociación de Belenistas se considera que estos cursos son fundamentales para garantizar el relevo generacional y para asegurar la continuidad de esta tradición artística y cultural.

# Adinekoen elkarteak denboraldi berria du gogoan

Herriko festen ondotik, elkarteak bere denboraldiari helduko dio. Hori bai, ez ahaztu aurten ere festetan bazkaria eginen dutela Adinekoen Egunean.
Jarduera fisikoaren atalean, elkarteak hainbat jarduera eskaintzen ditu, hala nola yoga, chi kung, dantza, biodantza, martxa nordikoa, gaitasun funtzionala eta adineko aktiboak.
Eskuzko jardueretan, berriz, hainbat ikastaro, hala nola olio pintura, eskulanak, beira-alezko lanak, marrazkia, kakorratz-lana, patchwork-a eta zura lantzea. Bidaietan, hainbat irteera daude antolatuak: Bretainia (6 eguneko kultur bidaia irailean); Ezpeleta (irteera urriaren 1ean, bazkaria barne); eta Lekeitiora eta Ekoetxea Urdaibaira (eguneko ateraldia, bazkaria barne, azaroan).
Uda ondoren, gainera, boluntarioek beren lanari berrelduko diote.
Jende aunitz ematen ari da izena bai ateraldietarako bai ikastaroetarako; askotan, toki kopuruaren gainetik.

# La asociación de personas mayores ya piensa en el nuevo curso

Tras las fiestas, en las que un año más celebrarán una comida el Día de los y las mayores, la asociación arrancará su particular curso.
En el apartado de actividad física oferta talleres de Yoga, Chi kung, Baile, Biodanza, Marcha nórdica, Capacidad funcional y Mayores activos.
En el de actividad manual, cursos de Pintura al oleo, Manualidades, Abalorios, Dibujo, Ganchillo, Patchwork y Talla de madera. En el capítulo de viajes, hay programadas salidas a Bretaña (viaje cultural en septiembre de 6 días); Espelette (salida de día en octubre con comida; y a Lekeitio y Ekoetxea Urdaibai (salida de día con comida en noviembre).
Además, tras el verano, retoma su actividad el grupo de voluntariado.
Tanto las salidas como los cursos están teniendo muy buena acogida, en muchos casos superando la demanda la oferta de plazas.

# José Vicente Urabayenek botako du txupinazoa

# José Vicente Urabayen lanzará el txupinazo

José Vicente Urabayenek festetako txupinazoa jaurtiko du aurten, udal eta jaietako taldeek aho batez erabakirik, laster erretiroa hartuko duen honetan. Hainbat arrazoi eman dira horretarako; besteak beste, herriko jaiekin erakutsi duen inplikazioa eta Atarrabiako kultura eraldatzeko eragile izatea udal teknikari lanean aritutako 33 urteko ibilbidean. Une hain zirraragarrian, Marisa Goñi izanen du ondoan, urte horietan guztietan Kultur Etxearen kudeaketa lanetan izaniko lankidea.

José Vicente Urabayen lanzará este año, a pocas fechas de su jubilación, el txupinazo de fiestas por decisión unánime de los grupos municipales y los colectivos de fiestas. Entre los argumentos esgrimidos, su implicación con las fiestas y su papel transformador de la cultura de Villava en sus 33 años de trayectoria como técnico municipal. En ese momento tan emotivo, le acompañará Marisa Goñi, compañera todos estos años en las labores de gestión de la Casa de Cultura.

# “Los Derechos Humanos no son un cuento”, Pedro de Atarrabia BHIren proiektu saritua

Atarrabiako Pedro de Atarrabia BHIri 2026ko "Vicente Ferrer" Elkartasun Globalerako Hezkuntza Sari Nazionala




eman diote Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia erakundeak (AECID) eta Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioak. Aitortzak "Los Derechos Humanos no son un cuento" proiektua saritu du, institutuak garatua eta Nafarroako Nuevo Futuro Elkarteak koordinatua, Elkartasunezko Eskolak ekimenaren bitan.

Ikasturtean zehar, izan ere, ikasleek hainbat gai landu dituzte, hala nola giza eskubideak, migrazioak, bizikidetza, jasangarritasuna eta kulturarteko elkarrizketa, hainbat herrialdetako giza eskubideen alde diharduten pertsonekin hitz eginez (El Salvador, Peru eta Senegal), nazioarteko kultur trukaketen bidez eta Atarrabian bertan egin diren ekintza komunitarioen bitartez.

Ikasturtean burutu diren ekimenen artean, bereziki da nabarmentzekoa eskola-irratia berreskuratu dela, tresna egokia baita hezkuntzarako eta gizartea eraldatzeko. Pedro de Atarrabiako ikasleek ikerketa eta eztabaida egin eta hainbat podcast ondu zituzten giza eskubideez eta herritartasun globalaz, eta gainera, Nafarroako Cadena SER irratiko Ser Solidarios irratsaioan ere parte hartu zuten beren esperientziaren berri emateko.

# “Los Derechos Humanos no son un cuento”, un proyecto del IES Pedro de Atarrabia con premio

El IESO Pedro de Atarrabia de Villava ha sido distinguido con el Premio Nacional de Educación para la Solidaridad Global "Vicente Ferrer" 2026, concedido por la Agencia Española de Cooperación Internacional para el Desarrollo (AECID) y el Ministerio de Educación, Formación Profesional y Deportes. El reconocimiento premia el proyecto "Los Derechos Humanos no son un cuento", desarrollado por el centro y coordinado por la Asociación Navarra Nuevo Futuro, en el marco del programa Escuelas Solidarias.

A lo largo del curso, las y los estudiantes han trabajado cuestiones como los derechos humanos, las migraciones, la convivencia, la sostenibilidad y el diálogo intercultural mediante encuentros con personas defensoras de derechos humanos de El Salvador, Perú y Senegal, intercambios culturales internacionales y diversas acciones comunitarias desarrolladas en su localidad.

Entre las iniciativas llevadas a cabo durante el curso destaca especialmente la recuperación de la radio escolar como herramienta educativa y de transformación social. El alumnado de Pedro de Atarrabia investigó, debatió y produjo varios pódcast sobre derechos humanos y ciudadanía global, llegando incluso a participar en el programa Ser Solidarios de Cadena SER Navarra para compartir su experiencia.

# Kultur Etxeko poesia taldea

# Grupo de poesía de la Casa de Cultura



ARANTZA LANDA

*Silencio*

No es fácil abrir la puerta Silencio
no es fácil.

Hay melodías, ruidos, mucho miedo

en silencio oyes crecer la semilla

transcurrir las horas, venir el viento

en silencio percibes

si quebraste ese corazón sediento

si los finados te aman en la orilla

si tus versos son solo humo o ingenio.



# Ibai Tolosa arraunlaria, Espainiako txapeldun C4 200 m-tan

# El palista Ibai Tolosa, campeón de España en C4 200 m

Kirolari gazte atarrabiarrak Espainiako Esprint Olinpiarren LVII Txapelketan lortu zuen garaipen handi hori, Sevillako Club Náuticoko Ricardo Domínguez, Pablo Martínez eta Pablo García de Sola kideekin batera. Lehiaketa Trasonako urtegian jokatu zen (Asturias), abuztuko lehen asteburuan. C4 200 m modalitatean urrea eskuratzeaz gain, Ibai Tolosa Gómezek brontzezko bi domina irabazi zituen C4 500 m eta C4 1.000 m modalitateetan.

Este gran triunfo lo consiguió el joven deportista villavés, junto a sus compañeros del Club Náutico de Sevilla Ricardo Domínguez, Pablo Martínez y Pablo García de Sola, en el LVII Campeonato de España de Sprint Olímpico celebrado en el embalse de Trasona (Asturias) el primer fin de semana de agosto. Además del oro en la modalidad C4 200 m, Ibai Tolosa Gómez consiguió sendas medallas de bronce en las modalidades C4 500 m y C4 1.000 m.

# AGENDA

**IRAILA-URRIA**

**ERAKUSKETAK**

**KULTUR ETXEA**

**Ordutegia:** Astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 21:00etara. Halaber, urriaren 25ean eta azaroaren 1ean, igandeak, 19:00etatik 20:00etara

**JAIETAKO KARTELAK 2026**

**Datak:** Irailak 1-18



**ARGAZKIA**

"Experiencias" Foto 67m argazki tailerra

**Datak:** Irailak 24 - Azaroak 1

Iosu Calvo, Fernando Plá, Javier Bengoetxea, Uxue Etxebeste, Pilar Izquierdo, Mercedes Pascual, Alejandro Liberal, Nieves Recalde, Judit Zudaire, Marian Inda, Patxi Flórez, Yanira Calvo eta Rubén Domínguez

## IRAILA

**20 IGANDEA**

**Iruñerria Dantzabira**

12:30. Dantza ikuskizuna, Larratz Dantzari Taldearen eskutik (Burlata)
13:15: Topadantza, herri dantzetan aritzeko saioa, dantza zale guztiendako irekia.
Non: Udaletxe plaza

**27 IGANDEA**

**Banda-musika**

Burlatako Musika Banda
Ordua: 13:00
Non: Udaletxe plaza

**29 ASTEARTEA**

**Kaleko dantza**

"3 Historias de dos"
¡XA
Ordua: 18:30
Ordua: 18:30
Non: Ribed parkea, Kultur Etxearen parean. Euria egiten badu, antzokian (sarrera librea)

## URRIA

**02 OSTIRALA**

**Kale ikuskizuna**

"Su Talka"
Deabru Beltzak
Ordua: 20:30
Non: Irteera Kultur Etxetik, karrika Nagusia eta Miguel Indurain plaza

**03 LARUNBATA**

**Haur zinema euskaraz**

"Ilargirantz"
Ordua: 17:30
Non: Kultur Etxeko antzokia
Sarrera: 1 €.

**04 IGANDEA**

**Musika familiarra eta gaztea**

"Los Moonsters"
Ordua: 17:30
Non: antzokia
Sarrera: 6 €.
Publikoa: Familientzat, 6/7 urtetik gorakoak

**10 LARUNBATA**

**Ikuskizuna: clown familiarra euskaraz**

"Hythistoria"
Ordua: 17:30
Non: antzokia
Sarrera: 5 €.
Publikoa: Familientzat/5 urtetik gorakoak

**11 IGANDEA**

**Haur zinema gaztelaniaz**

"Patti y la furia de Poseidón"
Ordua: 17:30
Non: Kultur Etxeko antzokia
Sarrera: 1 €

**17 LARUNBATA**

**Magia**

"3 Elementos"
Hodei Magoa
Ordua:
17:00: familientzat, 7 urtetik gora (gaztelaniaz)
18:00: familientzat, 7 urtetik gora (euskaraz)
19:00: helduak (gaztelaniaz)
20:00: helduak (euskaraz
Sarrera: 5 €.

**20 ASTEARTEA**

**2 opera aurkezteko hitzaldia**

**"Katiuska", Pablo Sorozábalek ondua, eta "Lucia di Lammermoor", Donizzettirena**
AGAO-Gayarre Nafarroako Operaren Adiskideen Elkartearen eskutik
Ordua: 19:00
Non: Kultur Etxeko 13. gela
Sarrera: librea

**21 ASTEAZKENA**

**Zine-foruma emakumea**

"Calladita"
Miguel Faus
Ordua: 19:00
Non: antzokia
Sarrera: librea
Publikoa: 16 urtetik gora

**22 OSTEGUNA**

**Hitzaldia Hiritartasun Eskola**

Jesús Barcos (Diario de Noticias) Jesús Marañarekin solasean (Infolibreko zuzendaria)
19:30 / Antzokia

**23 OSTIRALA**

**Ikus-entzunezkoa**

**"Atarrabia bere biztanleen oroimenean"**
Elkarrizketatuak: Soko Arrasate, Puri Sorbet, Maxi Olóriz, Fernando Garatea, Víctor Uriz Indurain eta Pello Gurbindo
Ordua: 19:00
Non: Antzokia
Sarrera: librea

**24 eta 25 LARUNBATA eta IGANDEA**

**Musika. Kantata euskaraz**

**"Mitoen oihartzunak kantata"**
Atarrabia Abesbatza / Iruñeko Hiria Orkestra / Laukote bakarlaria: Marta Huarte (sopranoa), Julen Jiménez (tenorra), Leticia Vergara (mezzosopranoa) eta Sabino Pérez de Ziriza (barítonoa) / Pianista: Itziar Pérez de Ziriza / Txistularia eta albokaria: Igor Martínez
Letragilea: Julio Soto
Konposizioa eta musika-zuzendaria: Iñigo Casalí
24, larunbata: 19:30
25, igandea: 12:00 eta 19:30
Non: Antzerkia.
Sarrera: 10 €. Salgai urriaren 1etik aitzina

**28 ASTEAZKENA**

**Ipuin-kontalaria**

Gaztelaniaz
"Tengo miedo. Y qué?!"
Aintzane Baleztena
18:00
Kultur Etxeko 8. gela
4 urtetik gora
Gonbidapenarekin, 10 minutu aurretik hartu beharra

**29 OSTEGUNA**

**Ipuin-kontalaria**

Euskaraz
"Harri baten azpian bidea egina"
Birjiñe Albira
18:00
Kultur Etxeko 8. gela
4 urtetik gora
Gonbidapenarekin, 10 minutu aurretik hartu beharra

**29 OSTEGUNA**

**Zinema**

"Ombuaren Itzala- La sombra del Ombú"
Patxi Bisquert
Ordua: 19:00
Non: Antzerkia.
Sarrera: librea
Aurkezpena eta filmaren ondoko solasaldia zuzendariarekin: Patxi Bisquert

**30 OSTIRALA**

**Pop, rock**

Geminiss
Ordua: 20:00
Non: antzokia
Sarrera: 5 €

**BESTA JIRA XXXI. ARGAZKI LEHIAKETA**

- Modalitateak (4): zuri-beltzean, koloretan, herriko gaia eta Atarrabiako jaiak 2026
- Parte-hartzaileen adina: 16 urtetik aurrera
- Gaia: librea, zuri-beltz eta kolore modalitateetarako
- Baldintzak: lan originalak, argitaragabeak eta ez sarituak
- Lan kopurua: bi lan gehienez modalitate eta egile bakoitzeko
- Sariak: bi sari (300 eta 150 €) zuri-beltzean eta koloretan. Hiru sari (300, 200 eta 150 euro) herriko gaia eta Atarrabiako jaiak 2026 modalitateetan
- Aurkezpen epea: urriak 14, asteazkena, azaroak 6, ostirala (21:00etan)
- Aurkezpen lekua: Kultur Etxea (karrika Nagusia 38. PK 31610)

Oinarri guztiak:
**www.villava.es**



## Euskal printza klasikoak, Hogei Berriro-ren eskutik

Txuma Flamariquek, Maite Txurrukak eta Jon Uribeetxeberriak ederki aletu zituzten euskal printza ezagun aunitz Udaletxe plazan, abuztuaren 21eko arratsaldeko kantaldian, kantuminak jota daudenen gozamenerako. Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Itoiz, Hertzainak, Ruper Ordorika eta beste batzuen printzak entzun ziren.

## Viaje a los clásicos en euskera con Hogei Berriro

Txuma Flamarique, Maite Txurruka y Jon Uribeetxeberria desgranaron en su concierto de la tarde del 21 de agosto en la plaza Consistorial unos cuantos clásicos en euskera, para deleite de los más nostálgicos. Sonaron Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Itoiz, Hertzainak, Ruper Ordorika...

# AGENDA

**SEPTIEMBRE-OCTUBRE**

**EXPOSICIONES**
**CASA DE CULTURA**
**Horario:** Lunes a viernes, de 18:00 a 21:00. También 25 de octubre y 1 de noviembre, de 19:00 a 20:00

**CARTELES DE FIESTAS 2026**
**Fechas:** 1-18 de septiembre



**FOTOGRAFÍA**
"Experiencias"
Taller fotográfico Foto 67m
**Fechas:** 24 de septiembre - 1 de noviembre

Iosu Calvo, Fernando Plá, Javier Bengoetxea, Uxue Etxebeste, Pilar Izquierdo, Mercedes Pascual, Alejandro Liberal, Nieves Recalde, Judit Zudaire, Marian Inda, Patxi Flórez, Yanira Calvo y Rubén Domínguez

## SEPTIEMBRE

**20 DOMINGO**

**Iruñerria Dantzabira**
12:30: Espectáculo de dantzas a cargo de **Larratz Dantzari Taldea (Burlada)**
13:15:**Topadantza**, sesión de danzas populares abierta a la participación del público aficionado.
Lugar: plaza Consistorial

**27 DOMINGO**

**Música de banda**
Banda de Música de Burlada
Hora: 13:00
Lugar: plaza Consistorial

**29 MARTES**

**Danza en la calle**
**"3 Historias de dos"**
¡XA
Hora: 18:30
Lugar: parque Ribed, frente a la Casa de Cultura. En caso de lluvia, en el teatro (entrada libre)

## OCTUBRE

**02 VIERNES**

**Espectáculo de calle**
**"Su Talka"**
Deabru Beltzak
Hora: 20:30
Lugar: salida desde la Casa de Cultura, calle Mayor y Plaza Miguel Indurain

**03 SÁBADO**

**Cine infantil en euskera**
**"Ilargirantz"**
Hora: 17:30
Lugar: teatro de la Casa de Cultura
Entrada: 1 €

**04 DOMINGO**

**Musical familiar y joven**
**"Los Moonsters"**
Hora: 17:30
Lugar: teatro
Entrada: 6 €
Público: familiar a partir de 6-7 años

**10 SÁBADO**

**Espectáculo clown familiar en euskera**
**"Hythistoria"**
Hora: 17:30
Lugar: teatro
Entrada: 5 €
Público: familiar a partir de 5 años

**11 DOMINGO**

**Cine infantil en castellano**
**"Patti y la furia de Poseidón"**
Hora: 17:30
Lugar: teatro de la Casa de Cultura
Entrada: 1 €

**17 SÁBADO**

**Magia**
**"3 Elementos"**
Mago Hodei
Hora:
17:00: público familiar a partir de 7 años (castellano)
18:00: público familiar a partir de 7 años (euskera)
19:00: público adulto (castellano)
20:00: público adulto (euskera)
Entrada: 5 €

**20 MARTES**

**Charla presentación de 2 óperas**
**"Katiuska" de Pablo Sorozábal, y "Lucia di Lammermoor", de Donizzetti**
A cargo de la Asociación Gayarre Amigos de la Ópera de Navarra (AGAO)
Hora: 19:00
Lugar:sala 13 de la Casa de Cultura
Entrada: libre

**21 MIÉRCOLES**

**Cine fórum mujer**
**"Calladita"**
Miguel Faus
Hora: 19:00
Lugar: teatro
Entrada: libre
Público: a partir de 16 años

**22 JUEVES**

**Conferencia Escuela de Ciudadanía**
**Jesús Barcos (Diario de Noticias) conversa con Jesús Maraña (Director de infolibre)**
19:30 / Teatro

**23 VIERNES**

**Audiovisual**
**"Villava en la memoria de sus vecinas y vecinos"**
Personas entrevistadas: Soko Arrasate, Puri Sorbet, Maxi Olóriz, Fernando Garatea, Víctor Uriz Indurain y Pello Gurbindo.
Hora: 19:00
Lugar: Teatro
Entrada: libre

**24 y 25 SÁBADO y DOMINGO**

**Música. Kantata en euskera**
**"Mitoen oihartzunak kantata"**
Coral Atarrabia Abesbatza / Orquesta Ciudad de Pamplona / Cuarteto solista: Marta Huarte (soprano), Julen Jiménez (tenor), Leticia Vergara (mezzosoprano) y Sabino Pérez de Ziriza (barítono) / Pianista: Itziar Pérez de Ziriza / Txistulari y albokari: Igor Martínez
Autoría letra: Julio Soto
Composición y dirección musical: Iñigo Casalí
Sábado 24: 19:30
Domingo 25: 12:00 y 19:30
Lugar: Teatro
Entrada: 10 €. A la venta desde el 1 de octubre

**28 MIÉRCOLES**

**Cuentacuentos**
Castellano
"Tengo miedo. Y qué?!"
Aintzane Baleztena
18:00
Sala 8 Casa de Cultura
A partir de 4 años
Con invitación que hay que recoger 10 minutos antes

**29 JUEVES**

**Cuentacuentos**
Euskera
"Harri baten azpian bidea egina"
Birjiñe Albira
18:00
Sala 8 Casa de Cultura
A partir de 4 años
Con invitación que hay que recoger 10 minutos antes

**29 JUEVES**

**Cine**
"Ombuaren Itzala-
La sombra del Ombú"
Patxi Bisquert
Hora: 19:00
Lugar: Teatro
Entrada: libre
Presentación y coloquio posterior con el director, Patxi Bisquert

**30 VIERNES**

**Pop, rock**
Geminiss
Hora: 20:00
Lugar: teatro
Entrada: 5 €

**XXXI CERTAMEN DE FOTOGRAFÍA BESTA JIRA**

- Modalidades (4): blanco/negro, color, tema local y fiestas de Villava 2026
- Edad participantes: a partir de 16 años
- Tema: libre para las modalidades de blanco/negro y color
- Condiciones: obras originales, inéditas y no premiadas
- Número de obras: un máximo de dos obras por modalidad y autor/a
- Premios: dos premios (300 y 150 €) en las modalidades blanco/negro y color. Tres premios (300, 200 y 150 euros) en las modalidades tema local y fiestas Villava 2026
- Plazo entrega: del miércoles 14 de octubre al viernes 6 de noviembre (a las 21:00)
- Lugar entrega: Casa de Cultura (calle Mayor 38 CP 31610)

Bases completas:
**www.villava.es**



## Egiazko mariatxia udako arratsalde baterako

Guanajuatoko Mariachi Imperial taldeak aurten ere girotu du Atarrabia rantxeren eta dantza tradizionalen bidez. Abuztuaren 28ko arratsaldean aritu zen. Klasikoetan klasikoenek ez zuten hutsik egin, jakina: "Guadalajara", "El preso número 9", "México lindo"...

## Auténtico mariachi para una tarde de verano

El Mariachi Imperial de Guanajuato animó un año más el verano de Villava con sus rancheras y bailes tradicionales. Actuó la tarde del 28 de agosto. No faltaron los clásicos entre los clásicos: "Guadalajara", "El preso número 9", "México lindo"...

CUIDAMOS TU SONRISA

CDV

CLÍNICA DENTAL

VILLAVA

CDV CLÍNICA DENTAL VILLAVA 25 AÑOS CONTIGO



- Todas las soluciones para tu salud bucodental en Villava.
- Pídenos tu plan de tratamiento personalizado y pregunta por nuestras fórmulas de financiación.
- Somos expertos en: implantología, periodoncia, ortodoncia, diseño de sonrisa y odontopediatría (atención PADI).
- Tecnología de vanguardia y escáner 3D.

C/ Ezkaba 4, bajo 31610, VILLAVA - T. 948 13 06 05

WWW.CLINICADENTALVILLAVA.COM